

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO ELKARRIZKETAK

PERUKO ETA BIZKAIKO EMAKUME POLITIKO ETA
LIDERREN ELKAR TRUKEAREN SISTEMATIZAZIOA



INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO ELKARRIZKETAK

PERUKO ETA BIZKAIKO EMAKUME POLITIKO ETA
LIDERREN ELKAR TRUKEAREN SISTEMATIZAZIOA

Egiletza:

Errotik, Cooperativa Feminista de Iniciativa Social

Koordinazioa:

InteRed (Euskal Herriko Ordezkaritza)

Ilustrazioak:

Beatriz Aparicio

Diseinua eta maketazioa:

Iker Domínguez

Itzulpena:

Gizane Urkidi Oñate

Data:

2025eko urria

ISBN:

978-84-121198-8-6

Aurkezpena

Agiri hau InteRed Fundazioak eta Peruko “Manuela Ramos” Emakumeen Mugimenduak lankidetzarako eta lan bateraturako garatutako prozesu luzearen emaitza da. 2011. urteaz geroztik, bi erakundeek elkarrekin lan egin dute Punoko zein Juliaco eskualdean, eta, bertan, zenbait proiektu ezarri dituzte elkarrekin, emakumeek eta haien erakundeek indarkeria matxistarik gabe bizitzeko eskubidearen defentsarako dituzten gaitasunak sendotzeko asmoz, baina, esparru publikoetako jazarpen politikoa eta jazarpen sexuala kontuan hartuta, batez ere. Lan horren ondorioz, aurrerapen handiak lortu dira Peruko emakumeentzat, eta erreferentzia moduan erabili dira Bizkaian bertan sentsibilizaziorako jarduerak garatzeko orduan.

Bizkaiko Foru Aldundiko Lankidetzak Sailak finantzaturako “Antolatutako emakume eta neska gazteek eragin egiten dute, egituratu egiten dira eta mobilizatu egiten dira, jazarpen politikoa, jazarpen sexuala nahiz ziberjazarpena prebenitzeko, zehatzeko eta desagerrarazteko eta Punon zein Bizkaian zainketen inguruko erantzukidetasuna sustatzeko” proiektuaren esparruan, bi erakundeek prestakuntzarako zein hausnarketarako prozesua jarri dute abian emakumeen erakundeekin eta emakume hautetsiekin nahiz arlo publikoko zein politikoko emakumeekin, indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea defendatu nahian. Bertan, hain zuzen ere, esparru publikoa, partaidetza politikorako eremua eta emakumeek bertan pairatzen dituzten indarkeria matxistak nabarmentzen dira.

Aldi berean, behar besteko estrategiak garatu dira, emakume hautetsien aurkako jazarpen politikoa desagerrarazteko eta salatzeke eta, horrela, emakumeek bizitza publikoan nahiz politikoan duten partaidetza mugatzen duen genero-indarkeriaren berariazko adierazpen hori agerian jartzeko. Testuinguru horretan, InteRedeko Euskal Herriko Ordezkaritzak eraginerako eta sentsibilizaziorako bira antolatu zuen Peruko Punoko eta Juliaco sei emakume lider politikok eta komunitariok osatutako ordezkariatzarekin. Honako hauexek dira bertako kideak: euren eginkizunak udal-ordezkaritzaren arloan garatzen dituzten emakume politikariak (alkateak eta zinegotziak) eta emakumeen zein planetaren giza eskubideen defendatzaileak diren emakume gazte eta aktibistak.

Biran bertan, prestakuntzarako eremuak antolatu ziren, hausnarketarako tailerrak egin ziren Bizkaiko emakume politikariek, elkarrizketarako guneak jarri ziren abian gizarte zibileko eragileekin eta jarduera publikoak garatu ziren, indarkeria matxisten aurkako borrokarako eta prebentziorako esperientziei buruzko trukea eta hausnarketa bateratua sustatzeko, emakume hautetsien aurkako eta giza eskubideak defendatzen dituzten emakume liderren aurkako jazarpena kontuan hartuta, eta indarkeriarik gabeko gizarte global berdinzaleagorantz aurrera egiteko.

Topaketa eta truke horien ondorioz egindako agiri honetan, prozesu horretan sortutako esperientzia, ikaskuntza eta hausnarketa nagusiak azaltzen dira, eta saioetan parte hartu zuten guztiek balioztatu dute.

Aurkibidea

1. SARRERA	7
2. ESPARRU KONTZEPTUAL ETA POLITIKOA	11
2.1. ARLO POLITIKOKO INDARKERIA MATXISTAK: DEFINIZIOAK ETA DIMENTSIOAK	11
3. PROZESUAREN METODOLOGIA	17
3.1 ELKARGUNETZAKO ETA PARTAIDETZAZKO METODOLOGIA FEMINISTA	17
3.2 INFORMAZIOA BILTZEKO ESTRATEGIAK	18
3.3 PARTE HARTZEKO PROZESUKO FASEAK	19
3.4 IRIZPIDE ETIKOAK: ZAINKETA, ENTZUNALDIA ETA BAIMENA	20
4. ARLO POLITIKOAN ANTZEMANDAKO INDARKERIA MATXISTAK	25
4.1 EGITURAZKO INDARKERIAK BOTERE POLITIKOA ESKURATZEKO ETA ERABILTZEKO ORDUAN	25
4.2 INDARKERIA INSTITUZIONALA ETA BERRIRO BIKTIMA BIHURTZEKO PROZESUA	28
4.3 PERTSONEN ARTEKO INDARKERIAK ETA INDARKERIA SINBOLIKOAK JARDUERA POLITIKOAN	33
4.4 INDARKERIA DIGITAL ETA MEDIATIKOA	37
4.5 ZAPALKUNTZA-SISTEMEK GURUTZATUTAKO INDARKERIAK: ELKARGUNETZAK	41
4.6 ARLO POLITIKO ETA SOZIALEKO INDARKERIA IKUSEZINAK	43
5. PARTEKATUTAKO KONTAKIZUNAK ETA ESPERIENTZIAK	53
5.1 PUNOKO AHOTSAK	53
5.2 BIZKAIKO AHOTSAK	54
5.3 LOTUNEAK ETA DESADOSTASUNAK: NAZIOZ HARAINDIKO ELKARRIZKETAK	56
5.4 KONTAKIZUNETAKO EMOZIOAK, GORPUZTASUNAK ETA OROIMENAK	58

5.5	LOTUNEAK ZEIN SAREEN SORRERA ETA SALAKETA PUBLIKO BATERATUA	60
6.	ERRESISTENTZIARAKO ETA ERALDAKETARAKO ESTRATEGIAK	65
6.1.	LAGUNTZA-SAREAK, ERRESISTENTZIA ETA AHIZPATASUNA	65
6.2.	PRESTAKUNTZA, ERAGIN POLITIKOA ETA KOMUNIKAZIOA	68
6.3.	PARTAIDETZA KOMUNITARIOA, BELAUNALDIEN ARTEKOA ETA NAZIOZ HARAINDIKOA	71
6.4.	ZAINKETA KOLEKTIBOAK ETA NORBERAREN ZAINKETAK	73
6.5.	ERAGINERAKO, SALAKETARAKO ETA BULTZATUTAKO ARAU-ALDAKETETARAKO EKINTZAK	76
7.	IKASKUNTZA KOLEKTIBOAK ETA JAKINTZA FEMINISTAN EGINDAKO EKARPENAK	83
7.1.	LIDERGO ERRESILIENTEAREN FUNTSEZKO ELEMENTUAK	83
7.2.	PROZESUKO TENTSIOAK, KONTRAESANAK ETA INDARRAK	85
7.3.	OROIMEN KOLEKTIBOAREN BALIO POLITIKOA	88
7.4.	PROPOSAMEN METODOLOGIKOAK ETA PROZESUA BERREGITEKO TRESNAK	89
8.	BETEBEHARRAREN TITULARRENTZAKO (BBTT) GOMENDIOAK	95
8.1.	INGURUNE SEGURUAK BERMATZEKO NEURRI INSTITUZIONALAK	95
8.2.	ELKARGUNETZAKO IKUSPEGI FEMINISTA KONTUAN HARTZEN DUTEN POLITIKA PUBLIKOAK	97
8.3.	EMAKUMEEN LIDERGOEN AITORTZA ETA JASANGARRITASUNA	99
8.4.	INDARKERIA INSTITUZIONALEI AURRE EGITEAN LAGUNTASUNERAKO ETA KONPONKETARAKO DAUDEN EREDUAK	101
9.	ONDORIOAK	107
9.1.	SISTEMATIZAZIOA ETA ZABALKUNDEA/AGERIKOTASUNA, JUSTIZIA SINBOLIKO ETA POLITIKO MODUAN	107
9.2.	EKINTZA POLITIKO FEMINISTARAKO AUKERA ERKIDEAK	109

Sarrera

Hainbat erronkak gurutzatutako testuinguru globalean, feminismoek sareak ehuntzen, aliantzak eratzen eta erresistentziarako zein eraldaketarako eremuak sortzen jarraitzen dute. Eskubideen aurkako diskurtsoen aurrerapenaren ondorioz atzera egin beharrean, emakume antolatuek egituraketarako eta erresistentzia politikorako prozesuak bultzatzen jarraitzen dute.

Txosten hau esparru horretan sortu da, eta behar besteko tresna da, Bizkaiko eta Peruko Andeetako hegoaldeko (Manuela Ramos Mugimendua erakundeko ordezkariak eta Peruko Punoko emakume lider politiko zein komunitarioak) emakume lider feministen arteko trukerako prozesuaren ondorioz sortutako ikaskuntzak agerian jartzeko, balioa emateko eta egituratzeko. Prozesua sistematizatu egin da, zikloko saioetan partekatutako edukiak modu antolatuan, kritikoan eta hausnarkorrean bildu behar direlako, baita aktibisten, emakume lider politikoen, ordezkari instituzionalen eta eragile sozialen arteko elkarriketa horretan antzemandako estrategia, oztopo eta helburu bateratuak ere.

Txostenak helburu bikoitza dauka: batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatutako proiektuaren esparruan InteRed Euskal Herriak eta Manuela Ramos Mugimenduk bultzatutako eta Bizkaian 2025eko martxoan garatutako truke-prozesua zehatz-mehatz eta era kokatuan dokumentatzea; eta, bestetik, botere-eremuetako (politikoa, komunitarioa, instituzionala, publikoa eta unibertsitarioa) indarkeria matxistei buruzko jakintza kolektiboa sortzen laguntzea, emakume parte-hartzaileen kontakizunak, azterketak eta proposamenak kontuan hartuta. Alde horretatik, agiriak inplikaturako erakundeak ditu hartzaile, baita lankidetzak feministaren, giza eskubideen, politika publikoen eta gizartearen eraldatzeko hezkuntzaren arloko beste eragile batzuk ere.

Sistematizazioa elkargunetzako ikuspegi feminista kokatuan dago oinarrituta, eta ikuspegi horrek emakume parte-hartzaileen jakitateak aitortzen ditu jardun politikoaren, esperientzia kolektiboaren eta lurralde-eraketaren bidez sortutako zilegizko jakintza eraldatzaile moduan. Haien generoaren, gizarte-mailaren, jatorri etniko arrazialaren, adinaren, desgaitasunaren, kokapen geografikoaren edo sexu-orientazioaren arabera emakumeek jasaten dituzten

era guztietako desberdintasunak hartzen ditu kontuan. Horrez gain, ariketa politikoa eta harremanezko ariketa ere bada, eta ez da egitateen erregistrora mugatzen, erresistentziak jartzen dituelako agerian, zentzuak jartzen dituelako lehian, antolakuntzarako zein justizia sozialerako prozesuak sendotzen dituelako eta prozesuaren dimentsio emozional, kolektibo eta afektiboa zain-tzen duelako.

Trukea 2025eko martxoaren 24tik 29ra garatu zen Bizkaian, eta honako haue-xek parte hartu zuten bertan: Peruko Punoko sei lider feministak osatutako ordezkaritza (prozesu komunitario zein politikoetan dihardutenak) eta Euska-din emakumeen eskubideekin nahiz berdintasunarekin konpromisoa dauka-ten zenbait erakunde, instituzio eta giza talde. Sei egunetan, tailerrak, bisita-di instituzionalak, elkarrizketa politikorako saioak eta elkarrekin hausnartzeko eremuak egin ziren Peruko Manuela Ramos Mugimendua erakundearekin eta emakume lider politiko zein komunitarioekin, Bizkaiko emakume politi-kari hautetsiekin, emakume migratzaileen elkarteekin, erakunde feministe-kin, Berdintasuneko teknikariekin, eragile sozialekin eta gazte aktibistekin.

Prozesu horri esker, zenbait arlotako (politikoa, instituzionala, komunitarioa, unibertsitarioa eta digitala) indarkeria matxisten aurkako borrokako espe-rientziak partekatu ziren, baita erresistentziarako, zainketarako, salaketarako, konponketarako eta eraldaketarako estrategia kolektiboak ere. Partekatuta-ko edukitik haratago, elkarrizketa politikorako eta elkarren arteko ikaskun-tzarako aukera moduan ere bizi izan zen zikloa, eta, bertan, emakume parte hartzaileek euren desberdintasunak eta euren lurraldeetatik gainditu behar dituzten antzeko erronkak aitortu zituzten. Horrela, behar besteko apustua sendotu da, errespetuaren, entzunaldiaren eta ekintza partekatua bidez nazioz haraindiko sare feministak ehuntzeko.

ESPARRU KONTZEPTUAL eta **POLITIKOA**



Arlo politikoko indarkeria matxistak: definizioak eta dimentsioak

2.1

Emakumeen partaidetza politikoa funtsezko eskubidea dela aitortu da nazioarteko, estatuko, autonomia-mailako eta tokian tokiko hainbat eta hainbat esparru juridikotan. Euskal arloan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, botere publikoek benetako berdintasuna bermatu behar dute bizitzako arlo guztietan, baita arlo politikoan ere. Era berean, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako martxoaren 16ko 2/2022 Foru Arauan berariaz ezartzen da haien ordezkartza politikoaren garapenean emakumeen artean eragina duen indarkeria prebenitu eta desagerrarazi behar dela derrigorrean.

Foru eta autonomia mailako arau-esparru horrek Peruko lege-esparrua dauka osagarri, honako lege hauek dituztelako bertan: 31030 Legea (hautagaien zerrendetan parekotasuna eta genero-txandaketa bermatzeko asmoz hauteskunderen legeriari buruzko arauak aldatzen dituen 2020ko uztailaren 23ko legea), Bizitza Politikoan Emakumeen Aurkako Jazarpena Prebenitzeko eta Zehatzeko 2021eko apirilaren 7ko 31155 Legea eta 30364 Legea zein bere araudia (Bizitza Politikoan Emakumeen Aurkako Jazarpena Prebenitzeko eta Zehatzeko Legea), jazarpen politikoa indarkeria-mota dela aitortzen dutenak. Nazioartean, Bizitza Politikoan Emakumeen Aurkako Indarkeria Prebenitzeko, Zehatzeko eta Desagerrarazteko Amerika Arteko Eredu Legea nabarmentzen da. Amerikako Estatuaren Erakundeko (OEA) CIMEk proposatu zuen 2017an, eta, bertan adierazitakoaren arabera, honako haxe da emakumeen aurkako indarkeria politikoa: *“zuzenean edo hirugarrenen bidez egindako edozein ekintza, jokabide edo hutsegite, emakume bati edo batzuei generoagatik kaltea edo pairamena sorrarazten dienean eta bere helburua edo emaitza emakumeen eskubide politikoan aitortza, gozamena edo erabile-*

ra kaltetzea edo ezeztatzea denean". Definizio horretan azpimarratu egiten da genero-indarkeria politikoa kargu publikoetan dauden emakumeen artean duela eragina, baina jarduera politiko, sozial edo komunitarioetan parte hartzen dutenen artean ere bai. Era berean, honako hauexek ere baditugu: Istanbulko Hitzarmenaren 7. artikulua eta CEDAW Batzordeak Aldi Batera-ko Neurri Bereziei, Parekotasunari eta Emakume Indigenei buruz emandako 25., 39. eta 40. Gomendio Orokorra. Guzti-guztietan, aitortu egiten da genero-indarkeria politikoa bereizkeria-modua dela eta giza eskubideen erabateko erabilera eragozten duela.

Genero-indarkeria politikoa jarduketa sistematikoen multzoa da, eta bere helburua edo emaitza emakumeak izateagatik emakumeen partaidetza politikoa oztopatzea, baldintzatzea, zilegitasuna kentzea edo eragozte da. Arlo politikotik kanpoko eragileek indarkeria hori darabilte, eta, askotan, eremu instituzionaletan bertan, alderdietan zein ordezkaritza-egituretan berregiten da. Alde horretatik, ulertu egin behar da indarkeria instituzionala genero-indarkeria politikoa adierazpide maltzurrenetakoa dela, eskubideak bermatu beharko lituzketen egiturek eurek darabiltelako. Honako hauxe da indarkeria hori: salaketen aurrean ezer ez egitea, protokolo eraginkorrik ez egotea, izen ona behin eta berriro kentzea, berriro biktima bihurtzea, berariazko la- guntzarik ez jasotzea eta emakume asko erabaki-guneetatik kanpo uzten dituen desberdintasunezko tratua jasotzea. Bere eragina sakona da: instituzioen inguruko konfiantza moteltzen du, partaidetza demokratikoa ahultzen du eta emakumeek esparru publikoan jasaten duten egiturazko bazterkeria betikitzen du. Emakumeen aurkako indarkeria edota jazarpen politiko hori are agerikoagoa da, emakumeen partaidetza politikoa handiagoa denean, baina ordezkaritza politikoko karguetan daudenean, batez ere. Aldi berean, genero-kuotak eta parekotasuna ezartzean heldu dira kargu horietara, neurri horiek Ameriketako hainbat eta hainbat herrialdetan abian jarri ondoren (Emakumeen Aurkako Indarkeria eta Jazarpen Politikoei buruzko ADIERAZ- PENA. MESECVI. OEA. 2015).

Genero-indarkeria politikoa dimentsioak era askotakoak dira, eta konple- xutasunez gurutzatzen dira; esate baterako, eraso fisikoak edo hitzezkoak, jazarpen psikologikoa, zirikatze digitala, hedabideetan izen ona kentzea, nahitako isolamendua, isiltasuna, haien zilegitasuna etengabe kolokan jar- tzea edo araudien instrumentalizazio zigortzailea. Horren guztiorren ondo-

Esparru kontzeptual eta politikoa

rizo, giro oldarkorra sortzen da, eta eragin zuzena dauka emakumeen osasun fisiko zein emozionalean, baita haien buru-estimuan, proiektu politikoan eta eremu instituzionaletan duten iraunkortasuna ere. Hori dela eta, autoeskaera, higadura, barruratutako erruduntasuna eta bakardadea emakumeek askatasunez, segurtasunez eta berdintasunez parte hartzeko duten eskubidea oztopatzen duten sistemaren albo-ondorioak dira.

Elkargunetzako ikuspegitik, aitortu egin beharra dago indarkeria horrek ez duela eragin berbera emakume guztien artean. Zapalkuntzen gurutzagunean dauden emakumeek (euren jatorri etniko arrazialagatik, gizarte-maialagatik, sexu-orientazioagatik, genero-nortasunagatik, adinagatik, desgaitasunagatik edo lurraldeagatik) konplexuagoak, normalizatuagoak edo ikusezinoak diren indarkeria-moduei aurre egin behar diete. Emakume indigenen, arrazializatuen edo migratuen kasuan, esaterako, indarkeria politikoa egiturazko arrazakeriarekin, xenofobiarekin eta bereizkeria instituzionalarekin gurutzatzen denez, oztopo gehigarriei aurre egin behar diete euren eskubideak erabiltzeko orduan. Modu berean, emakume gazteen, desgaituen edo herri-sektoreetako enpartaidetza politikoa mugatzen da, aurreiritzi sozialak daudelako eta berriazko laguntzarik, irisgarritasunik edo aitortza instituzionalik ez dagoelako.

Egoera giza eskubideen ikuspegitik irakurtzean, ulertu egiten da genero-indarkeria politikoa banakako edo egoeraren araberrako gertakaria dela eta, horrez gain, behin eta berriro urratzen dituela partaidetzarako eskubidea, adierazpen-askatasuna, osotasun fisiko zein psikologikoa, berdintasuna eta ez-bereizkeria. Ikuspegi horren ondorioz, instituzioek ikuspegi eraldatzailea ezarri behar dute, eta ezin da erantzun zigortzaile edo errektibora mugatu, prebentziorako, konponketarako, babeserako eta eskubideen bermerako egiturazko neurriak eskaini behar direlako, justizia sozialaren zein berdintasunaren inguruko konpromisoa kontuan hartuta.

Labur-labur esanda, genero-indarkeria politikoari buruz hitz egiten denean, arazoaren egiturazko sakontasuna aitortu behar da, era guztietako modalitateak zein ondorioak jarri behar dira agerian, erantzukizun instituzionala salatu behar da indarkeria berregiten duen eragilea denean eta ekintza politiko eraldatzailearen inguruko konpromisoa hartu beharra dago, emakume guztien duintasuna, ahotsa eta eskubideak erdigunean jartzeko, baina zapalkuntzen elkargunetzaren eraginpean daudenean, batez ere.

PROZESUAREN METODOLOGIA



Prozesuaren metodologia

Kapitulu honetan, Bizkaiko eta Peruko emakume lider feministen arteko topaketen zikloaren sistematizazioa bideratu zuten ikuspegi, tresna eta erabaki metodologikoak azaltzen dira. Prozesua ez zen informazioa biltzeko bakarrik diseinatu, elkarrizketarako, zainketarako eta partekatutako jakitateen eraketarako eremu politikoa izan zelako, elkargunetzako ikuspegi feminista kokatua kontuan hartuta.

Elkargunetzako eta partaidetzazko metodologia feminista

3.1

Sistematizazio feminista prozesuko esparru metodologiko nagusia izan da. Azterketa kritikorako tresna da, eta, emakumeen euren jakitateen zein ibilbideen bitartez, esperientzia kolektiboak antolatzeko, interpretatzeko eta politizatzeo aukera ematen du. Metodologia horren helburua ez da bizitakoaren azalpen neutro eta objektiboa ematea, konpromisodun irakurketa kokatu eta eraldatzailea egitea baizik. Horretarako, emakumeek sortutako jakintza zilegizko jakitatea dela aitortzen da.

Ikuspegi horrek zenbait korrante metodologiko izan ditu elikagai: Amerika Latinoko herri-hezkuntza feminista, epistemologia feminista komunitarioaren ekarpenak, jakintza sortzeko modu hegemonikoei buruzko kritika dekoloniala eta tresna analitiko zein politikotzat hartutako elkargunetza. Claudia Korol, Rita Segato, Kimberlé Crenshaw, Yuderlys Espinosa eta Silvia Rivera Cusicanqui autoreak inspirazio-iturria izan dira, honako hauxe helburu daukan prozesu metodologikoa eratzeo orduan: jakitatearen hierarkiak haustea, horizontaltasuna sustatzea, emozioei zilegitasuna ematea eta zenbait eratako lengoaia politikoetarako eremuak irekitzea.

Prozesuan bertan, honako printzipio metodologiko hauek egituratu dira:

- **Jakintza kokatuaren sorkuntza:** esperientzia kolektiboetan eta emakume parte-hartzaileen lurralde-errealitateetan dago oinarrituta.

- **Elkargunetza eta justizia soziala:** emakumeek pairatzen dituzten era guztietako zapalkuntzak hartzen dira kontuan; esate baterako, arrazakeria, klasismoa, kolonialismoa edo LGTBIfobia.
- **Zainketa eta elkarrekikotasuna:** konfiantzako lotu-neetan oinarritutako eremu seguruak eratzen dira.
- **Dimentsio emozionala eta gorputzekoa:** gorputza eta emozioak jakitatearen baliozko iturriak direla aitortzen da.
- **Partaidetza aktiboa eta horizontaltasuna:** emakume parte-hartzaileak prozesuko fase guztietan daude inplikatur.

3.2 Informazioa biltzeko estrategiak

Topaketen zikloko informazioa biltzeko orduan, partaidetzazko estrategiak erabili ziren, eta arreta handiz zeuden diseinatuta, konfiantza, adierazpen askea eta lanketa kolektiboa sustatzeko. Tresna nagusia elkarrizketa tematikoak izan ziren, eta alde zurretik adostutako ardatzen inguruan zeuden antolatuta; esate baterako, indarkeria politikoa, erresistentzia komunitarioak, indarkeria instituzionalak edo zainketarako estrategiak. Eremu horietan, lehen pertsonan egindako narrazioari, galdera irekien erabilerari eta isiluneen balioztapenari eman zaie lehentasuna adierazpen politikorako sistema moduan.

Horren osagarri, hitzez nekez adierazten diren esperientzien adierazpen sinbolikoa bultzatu zuten dinamikak erabili ziren. Besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira:

- **Denbora-lerro pertsonalak eta kolektiboak.**
- **Argazki sinbolikoak (Sikkhona) eta ahozko kontaktunak.**

Prozesuaren metodologia

- **Aliantzen taulak, erresistentzien mapak eta taldean egiteko ariketak.**

Prozesu guztia honako honexen bidez dokumentatu zen: zuzeneko aktak, grabaketak (baimena eman zutenean), sortutako materialen argazkiak eta tartekarien egunkari hausnarrak. Intsumoak matrize tematikoetan antolatuta dira, eta, ondoren, parte-hartzaileekin balioztatu dira, edukien interpretazioa kolektiboa, etikoa eta ez-estratikiboa dela ziurtatzeko.

Parte hartzeko prozesuko faseak

3.3

Prozesua bost fase handitan egituratu zen:

- 1. Diseinu metodologiko partekatua:** InteRed Euskal Herriak eta Errotik Kooperatibak zikloaren printzipioak, helburuak eta egitura adostu zituzten, parte-hartzaile guztien premien eta lengoaien arabera zela ziurtatzeko.
- 2. Hasierako saioa (martxoak 25):** InteRed Euskal Herriko, Peruko emakume lider zein aktibisten eta Errotik Kooperatibako ordezkarien arteko elkargunea jarri zen abian, konfiantza sortzeko. Horrez gain, ibilbideak aurkeztu ziren, eta, bertan, aurreikuspenak zein gurariak partekatu ziren, metodologia sinboliko eta arretatsua-
ren bidez.
- 3. Trukerako saio tematikoak (martxoak 25, 26, 27 eta 28):** prozesuaren muina izan zen. Lau saio eta alde biko zenbait bilera egin ziren, indarkerien eta erresistentzien zenbait dimentsio jorratzeko. Saio bakoitzean, zenbait eratako dinamika bateratu ziren, eta taldearen erritmoak errespetatu ziren.
- 4. Estrategiei buruzko hausnarketa:** kontakizunetatik

abiatuta, era kolektiboan hausnartu zen erresistentziarako estrategiei, egituraketa-moduei eta partekatutako aukerei buruz.

- 5. Itxiera emozionala (martxoak 29):** amaiera sinboliko eta afektiboari eman zitzaion lehentasuna. Bertan, hain zuzen ere, ikaskuntzak itzuli ziren, aliantzak proiektatu ziren eta InteRed Euskal Herriaren, Peruko emakume lider zein aktibisten eta Errotik Kooperatibaren arteko konpromisoak adierazi ziren.

3.4 Irizpide etikoak: zainketa, entzunaldia eta baimena

Ikuspegi etikoa nagusi izan zen. Hasiera-hasieratik, baimen informatuaren, anonimatuen eta entzunaldi aktiboaren printzipioak ezarri ziren, eta aitortu egin zen zeinen arriskutsua den indarkeriei buruz hitz egitea lidergoa eta jendaurrean agerira ateratzeko prozesua nagusi diren testuinguruetan. Prozesuko tartekaritzak elkarren arteko zainketari, euspen emozionalari eta ingurune seguruaren sorrerari eman zien lehentasuna.

Logika estraktibistak gaitzetsi ziren, isiluneak errespetatu ziren eta ekarpen guztiak hierarkiarik gabe balioztatu ziren. Horrez gain, emaitzak modu kolektiboan itzultzen zirela bermatu zen, parte-hartzaileen jakintza erabilgarri, eraldatzaile eta eskuragarriaren inguruan hartutako konpromisoaren erakusgarri.

Etika feminista kokatu horren bidez, prozesua bera jarduketa politikoa izan da: oroimenerako, konponketarako eta gizarte-eraldaketaren zerbitzura dau den jakitateen eraketa kolektiborako ariketa.



ARLO POLITIKOAN ANTZEMANDAKO INDARKERIA MATXISTAK



Arlo politikoan antzemandako indarkeria matxistak

Kapitulu honetan azaldutako indarkeriak topaketen zikloko emakume parte-hartzaileek partekatutako kontakizunetatik, hausnarketetatik eta azterketatik sortu dira. Azterketaren helburua ez da testuinguruen arteko erkaketa hierarkikoa ezartzea, indarkeria matxistek zenbait lurraldetan hartzen dituzten forma ugariak agerian jartzea baizik. Horretarako, berariazkotasun instituzionalak, kulturalak eta lurraldekoak hartzen dira kontuan, baita emakumeen partaidetza politikoa murrizten duten egiturazko mekanismo bateratuak ere.

Bizkaian zein Perun, botere-eremuetan dituzten agerpena, iraunkortasuna eta zilegitasuna zailtzen dituzten oztopoei aurre egin behar diete emakumeek. Hemen azaltzen diren indarkeriak ez dira unean uneko edo banakako egintza hutsak, generoaren, gizarte-mailaren, jatorriaren, adinaren edo gaitasunaren arloko desberdintasunak berregiten dituen egitura sozial eta instituzionalaren parte baizik. Testuinguruak desberdinak izan arren, zikloak ageri-agerian utzi zuen narrazioa antzekoa dela salaketari, erresistentziari eta eraldaketari begira eta nazioz haraindiko azterketa eta ekintza feministarako giltzarri partekatuak lantzeko aukera ematen duela.

Egiturazko indarkeriak botere politikoa eskuratzeko eta erabiltzeko orduan

4.1

Emakumeek arlo politikoan jasaten dituzten egiturazko indarkeriek Bizkaiko zein Peruko emakume liderren artean daukate eragina, nahiz eta testuinguruen arabera ñabardura desberdinez adierazten diren. Bi lurraldeetan, parte-hartzaileek aipatu egin zuten sistema politikoak ez duela emakumeen lidergoa bultzatzen eta onartzen eta, askotan, oztopoak jartzen dituen ingurune oldarkorra dela begirada feministaren bidez eraldatzen saiatzen direnentzat. Egia esan, begirada feministaren bitartez eraldatzen saiatzen direnei etengabeko oztopoak inposatzen dizkien ingurune oldarkorra dela uste dute.

Emakumeen lidergoaren higadura sistemikoa aitaturako lehenengo indar-

kerietakoa izan zen. Emakumeak bat datoz haien iraunkortasunaren aurka egiten duen egiturari aurre egin behar diotela esatean. Emakume hautetsi batek guztien artean oihartzun handia izan zuen esaldiaz laburbildu zuen esperientzia hori: *“gu geu hingatzea du helburu”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Neke hori, ordea, fisikoa ez ezik, sinbolikoa eta emozionala ere bada, bikoitza eskatu eta erdia aitortzen duen logika instituzionalaren ondorioz.

Esparru horretan, emakume politikarien zilegitasuna etengabe kolokan jartzea izan zen zeharkako beste ardatz bat. Bizkaiko emakume parte-hartzailen esanetan, gizon kideei ez bezala, larregizko prestakuntza etengabea (maisutza, doktoretza) eskatzen zaie: *“gizonek edozeri buruzko iritzia ematen dute inolako apaltasunik gabe, eta guk gai bakoitzari buruzko doktoretza egin behar dugu”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Eskaearen arloko desberdintasun horrek norberaren pertzepzioan ere badu eraginik. *“Sinetsi egin behar dugu erantzukizun handieneko postuetan egoteko gai garela”* (1. saioa: Emakume hautetsiak), adierazi zuen beste emakume batek. Beraz, agerikoa da nolako pisua duten aitortza ez jasotzean barruratzen diren ziurtasun-gabeziek.

Desberdintasunok larriagotu egiten dira, alderdi politikoen euren baldintza materialak jokoan sartzen direnean. Bi lurraldeetako emakume liderrek azaldu zutenez, soldata-arrakalek, prestakuntzetara joateko aurrekonturik edo laguntza ekonomikorik ezak eta oinarrizko baliabideak eskuratzeko desberdintasunek haien jardun politikoa mugatzen dute. Peruko ordezkari batek baieztatu zuenez, *“prestakuntzetara joateko baimena eman behar digute, eta, askotan, ez digute ematen. Horrez gain, ez dizkigute legearen arabera dagozkigun dietak ematen”* (3. saioa: Eragile sozialak). Bizkaiko aktibista batek ere azpimarratu egin zuen lan feminista ezegonkorra dela, autoeskatutako lanaldien, finantzaketa-faltaren eta aitortza instituzional urriaren ondorioz: *“eremuak ixten dizkigute, jardueren izenburuak zentsuratzen dizkigute eta proiektuak behatzen dizkigute”* (1. bilera: Munduko Emakumeak).

Antzeko beste oztopo bat etxeko, erkidegoko eta zainketetako lanaren gainkarga izan zen, etengabe mugatzen dituelako emakumeek parte hartzeko dituzten denbora eta indarra. *“Geure burua da albo batera uzten dugun bakarra”* (1. saioa: Emakume hautetsiak), aitortu zuen parte-hartzaileetako batek. Gainkarga horrek bertan egotea galarazten du, eta, horrez gain, lider-

Arlo politikoan antzemandako indarkeria matxistak

goaren jarraitutasuna ahultzen du, landa-testuinguruetan, batez ere, bertan zainketen arloko erantzukidetasunik ia-ia ez dagoela kontuan hartuta.

Prestakuntzako eta teknologiko baliabideak eskuratzeko aukerari dagokionez, landa-inguruneko emakumeek (Perukoak, batez ere) eten digitala eta kalitateko prestakuntzak egiteko zailtasunak salatu zituzten. Desberdintasun hori ez ezik, haien jakitate komunitario zein kokatuei zilegitasunik ematen ez zaiela ere hartu behar da kontuan. Izan ere, instituzioek nekez aitortzen dute baliozkoak direla. Parte-hartzaile batek esan zuenez, *“jakintza teknikoak baliho handiagoa dauka. Badirudi gure jakintza komunitarioak ezertarako balio ez duela”* (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Bi testuinguruetan, elkargunetzako indarkeriak irmo-irmo jarri ziren agerian. Emakume indigenek, gazteek, migratuek edo desgaituek era guztietako bazterkeria pairatzen dute. “Ezin zuten onartu emakume batek gobernatzea eta, are gutxiago, bertokoa izatea. Gorriak ikusi nituen” (3. saioa: Eragile sozialak), partekatu zuen alkate ohi batek. Bizkaian, zinegotzi migratu batek honelaxe azaldu zuen nolakoa den bere agerpena zilegi egiteko etengabe egindako ahalegina: *“aitortza-falta ezin handiagoa da, eta etengabe egon behar zara hirukoitzak erakusten”* (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Egiturazko indarkeria emakumeek erabaki-guneetan duten kokapen periferikoan ere azaltzen da, modu sinbolikoan nahiz fisikoan. *“Badirudi eremuak ditugula, baina oraindik ez gara eremu nagusietara iritsi, modu fisikoan ere ez; bileretan, esaterako”* (1. saioa: Emakume hautetsiak), salatu zuen emakume parte-hartzaileetako batek.

Horrez gain, matxismoaren ukapena instituzionalizatuta dagoenez, are zailagoa da salatzea. Bizkaian, esaterako, arau-esparru babesle nabarmena badago ere, indarkeria asko ikusezinak direnez, are zailagoa da salatzea eta konpontzea: *“uste dut oso maltzurra dela hemen gertatzen dena, legeak daudelako eta badirudielako oso txarto dagoela jokabide matxistak egoitea... eta, horren ondorioz, ez dira aitortzen”* (2. saioa: Kontseilua).

Ikusezintasun hori indartu egiten da, eremu mistoetan behin eta berriro kentzen digutelako gaitasuna, emakumeen ekarpenak subjektibotzat hartzen dituztela kontuan hartuta, nahiz eta datuetan edo arauetan oinarrituta dau-

den. *“Batzordeko agerraldi zehatzena egiten duzu, eta, gero, badator ezer irakurri ez duen gizon bat eta bere iritzia da kontuan hartzen dena”* (2. saioa: Kontseilua).

Emakume liderren inguruko gaitzespen soziala eta izen ona behin eta berriro kentzeko joera izan ziren partekatutako beste era bateko egiturazko indarkeriak. *“Edozer bilatzen dizute, fiskalizatu egiten zaituzte eta zeure izena belzten dute sare sozialetan”* (1. bilera: Munduko Emakumeak), azaldu zuen emakume parte-hartzaile batek. Askotan, arlo politikoan isolatzea eta lidergoei indarra kentzea da estrategia horien helburua.

Peruko Punoren eta Bizkaiaren artean arauetan eta baliabide instituzionaletan aldeak badaude ere, egiturazko indarkeriek bere horretan diraute, eta testuinguru bakoitzera egokitzen dira. Bizkaian, esaterako, berdintasunerako legeak eta partaidetzarako esparru aurreratuak badaude ere, indarkeriak ez dira desagertzen, ikusezin egiten direlako lortutako berdintasunaren inguruko diskurtsoen pean. Hori dela eta, zaila da salatzea eta konpontzea. Bestetik, Andeetako testuinguruan, egiturazko oztopoak larriagotu egiten dira lurralde, hizkuntza, gizarte, ekonomia eta etnia mailan dauden desberdintasunen ondorioz. Hala ere, emakumeen antolakuntza-gaitasuna eta agentzia politikoa irmoa bezain eraldatzailea da modu berean. Egiatzapen horren ondorioz, edozein begirada paternalista utzi behar da bertan behera, emakume guztiek haien lidergoak bertan behera utzi nahi dituzten sistemei aurre egin behar dietela ulertzeko, nahiz eta ingurunearen arabera estrategia horiek desberdinak diren. Beraz, ez da konkistatutako arloa, erresistentzia-eremua baizik, eta, bertan, emakumeek (Peruko Punon nahiz Bizkaian) haize kontra eusten diete lidergoei. Gainera, egiturazko indarkeriak salatzen dituen buru-argitasun kritikoa dutenez, ez dira biktima moduan agertzen. Izan ere, askok esan zutenez, *“zailtasunak zailtasun, hortxe egotea ere badelako politika egitea”*.

Indarkeria instituzionala eta berriro biktima bihurtzeko prozesua

4.2

Emakume parte-hartzaileek azaldu zutenez, estatuko egiturek botere-harreman desberdinak berregiten dituztenean agertzen da indarkeria instituzionala, hau da, instituzioek (eskubideak bermatu eta pertsonak babestu beharrean) botere-harreman desberdinak berregiten dituztenean, justizia eskuratzeko aukera galarazten dutenean edo emakumeen aurkako bereizkeria-modu zuzenak betikotzen dituztenean. Emakume liderren, hautetsien eta giza eskubideen defendatzaileen kasuan, indarkeria horrek ezin kaltegarriagoak diren berariazko adierazpideak ditu, baina, batez ere, erasoak salatzen dituztenean, testuinguru oldarkorretan lidergoa dutenean edo agenda feministak sustatzen dituztenean.

Partekatutako zenbait esperientzian, emakume parte-hartzaileak ez ziren batere neutralak izan, eta adierazi egin zuten sistema judiziala, hezkuntza-sistema edo osasun-sistema ordena patriarkal eta kolonialaren berregileak izan daitezkeela. Izan ere, benetako babesa eskaini beharrean, biktimen hitza jartzen dute zalantzan, indarkeriak txikiagotzen dituzte, oztopo sinboliko edo materialak inposatzen dituzte eta haien esperientziari kentzen diote zilegitasuna. Dinamika horren ondorioz, berriro biktima bihurtzeko prozesuak sortzen dira, eta, bertan, emakumeek jasandako kalteari aurre egin behar diote, baina erantzun-faltari, tratu txarrei edo erruduntasun instituzionalari ere bai.

Berriro biktima bihurtzeko prozesua auzitegietan edo arretarako zerbitzuetan ez ezik, eremu politiko eta komunitarioetan ere gertatzen da. Izan ere, bertan, emakumeei gaitasuna kentzen diete haien ideiegatik, hobeizintasuna eskatzen diete eta jendaurrean jartzen dituzte inolako babesik gabe. Horrelako esperientzia askotan, genero-ikuspegiaren falta, helduzentrismoa, arrazakeria, kapazitismoa edo klasismoa nagusi denez, emakumeak nahitaez nekatzen dira, eta emakume lider askok euren burua zentsuratzen dute, edo bertan behera uzten dituzte euren karguak.

Kapitulu honetan, Peruko Punoko eta Bizkaiko emakumeek partekatutako kontakizun eta esperientzia nagusiak azaltzen dira, eta agerian uzten dute isilarazteko egiturazko mekanismoa dela indarkeria instituzionala.

Saioetan bertan, Peruko nahiz Bizkaiko emakume parte-hartzaileek adierazi egin zuten indarkeria instituzionala dela eskubideak urratzeko modu iraunkor eta kaltegarrienetakoa. Indarkeria horrek honako hauxe du ezaugarri bereizgarri: indarkeria matxistako egoeren aurrean ezer ez egitea edo erantzunik ez ematea eta, horrez gain, salatzen dutenak berriro biktima bihurtzeko prozesua bete-betean garatzea, horrela zigorgabetasunaren eta bereizkeriaren egiturak indartu egiten direla kontuan hartuta.

Hainbat eta hainbat parte-hartzailek azaldu zutenez, askotan, instituzio publikoek ez dute beharrezko babesik ematen, eta, era berean, emakumeak eurak are gehiago atera ditzakete agerira. *“Ez zaituzte babesten, eta, horrez gain, agerira ere ateratzen zaituzte”* (1. bilera: Munduko Emakumeak). Babesgabetasun hori zenbait eratakoa da: bitartekaritzarako prozesu desegokietara bideratzea, salaketak edo funtsezko frogak galtzea eta genero-ikuspegia kontuan hartzen ez duen gizatasunik gabeko tratua ematea.

Berriro biktima bihurtzeko adibide irmoenetakoa Bizkaian gertatu zen. Bertan, hain zuzen ere, emakume parte-hartzaile batek salatu zuenez, erasoaren eta salaketa judizialaren ostean, pentsioak ez ordaintzeagatiko bitartekaritza-prozesura bideratu zuten, aurretiaz jasandako indarkeriaren historiala kontuan hartu gabe. *“Bazegoen indarkeriarik, baina, bestetik, pentsioak ordaindu gabe zeudenez, bitartekaritzara jotzea proposatu zuen epaitegiak. [...] Emakume bitartekari hark ez zekien zer gertatzen zen han”* (2. saioa: Kontseilua).

Jokabide hori Perun ere ikusten da, oso ohikoa omen delako biktimaren eta erasotzailearen artean rolak aldatzea. Emakume baten esanetan, *“kasuaren jarraipena egitera joan nintzenerako, ez zegoen salaketarik. Tratu txarren-gatik salatu ninduen, eta 7 egunez ezinean utzi nuela esan zuen. Nolatan utziko dut nik ezinean metro bat eta laurogeita hamarreko gizon bat?”* (1. bilera: Munduko Emakumeak). Horrelako jarduketa instituzionalek emakume salatzaileen sinesgarritasuna suntsitzen dute, eta, horrez gain, zigorgabetasun-ingurunea ere indartzen dute, baina, horren aurrean, emakume lider antolatuek eskagarritasunerako eta salaketarako prozesuak bultzatzen jarraitzen dute.

Horrez gain, emakumeen lekukotasunen inguruko mesfidantza instituziona-

Arlo politikoan antzemandako indarkeria matxistak

la orokorra da, eta are larriagoa da zerbitzuetan kalitaterik, adeitasunik eta jarraipenik ez dagoelako. Besteak beste, justizia eskuratzea zailtzen duten honako faktore hauek aipatu zituzten bi eskualdeetan: funtzionarioak etengabe aldatzea, genero-ikuspegia kontuan hartzen duen prestakuntzarik ez eskaintzea eta tratua inbertsonala izatea. Bizkaiko zenbait emakume parte-hartzailek adierazi zuten, *“emakumeek ez dute salatu nahi, jakin badakitelako berrirori ere tratatu txarrak jasango dituztela. Zerbitzuetan, ez dago ez kalitaterik ez adeitasunik”* (2. saioa: Kontseilua).

Emakume desgaituen kasuan, egiturazko babesgabetasuna zegoela salatu zuten. Bizkaian, esaterako, *“oro har, abegirako etxeak ez zeuden egokituta emakume desgaituentzat. [...] Gainera, zeure etxetik alde egin behar baduzu, nor joango da zurekin? Nork zainduko ditu zure seme-alabak?”* (2. saioa: Kontseilua). Horrez gain, indarkeria ikusezinak ere badaude, zainketarik ez ematea, adibidez, eta urraketa larriak ere badira. *“Baliabideak eskura uzten ez badizkizute, aulkia edo tratamendu medikoa, adibidez, horixe ere bada indarkeria”* (2. saioa: Kontseilua).

Peruko testuinguruari dagokionez, tokian tokiko edo jatorrizko hizkuntzetan interpretarik eta arretarik ez dagoela erantsi zuten. Hori dela eta, ketxuaz edo aimaraz hitz egiten duten emakumeek ez dituzte euren eskubideak benetan eskuratzen. La Sinsorgan mugimendu sozialekin egindako saioan nabarmendu zenez, *“emakumeei haien hizkuntzan eta landa-ingurunean eman behar zaie arreta, eta, horrela ez bada, horixe ere bada indarkeria”* (La Sinsorgan mugimendu sozialekin egindako saioa).

Hezkuntzaren arloan, indarkeria instituzionala ere agertu da irmotasun handiz. Perun, esaterako, unibertsitateetan sexu-jazarpeneko kasuak ezkututzen direla salatu zen. Emakume parte-hartzaile batek neska ikasle baten kasua azaldu zuen. Ikasle hori, hain zuzen ere, ele txarreatik salatu zuten irakasle bat erasotzailea zela adierazi ondoren, nahiz eta azkenean unibertsitatek berak irakasle hori bota zuen. *“Ele txarreatik salatu dute neska. Gizonak milioi bat soleko demanda jarri dio. Orain, orde, kasu hori artxibatzeko eskatuko dugu guk, unibertsitateak berak gizon hori bota egin duela azaltzen duen ebazpena eman duelako”* (1. bilera: Munduko Emakumeak). La Sinsorgan, salaketa hori indartu zen: *“unibertsitateko kontseiluan irakasleak eurak dira irakasleen zein neska ikasleen arteko sexu-jazarpeneko kasuak ikertzen*

dituztenak. Kasuak, gainera, ez dira erregistratzen, eta ez zaie arreta ematen” (La Sinsorgan mugimendu sozialekin egindako saioa).

Zeharkakotasunez, indarkeria instituzionalaren forma sinbolikoak ere aipatu ziren; esate baterako, neska gazteak umetzea, emakume nagusiei izen ona kentzea eta fisikoari, ahots-doinuari edo janzkerari buruzko etengabeko ju-dizioak jasatea. *“Oraindik ere, gure itxura fisikoari buruzko iruzkinak pairatu behar ditugu, dotore gauden ala ez, irribarre egiten dugun ala ez...”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Askotan, keinu horiek “jendetasun” edo “txantxa” gisa daude normalizatuta, eta emakumeei gaitasuna era sinbolikoan kentzeko ohiko baliabide moduan erabiltzen dira.

Peruko erakunde feminista parte-hartzaileek aktibismo feministaren kriminalizazioa ere salatu zuten. *“Izena belzten digute, Fiskaltzan salatu gaituzte eta, orain, sei proiektutan fiskalizatu gaituzte, oro har bi zirenean”* (3. saioa: Eragile sozialak). Jokabide hori larriagotu egin da, poliziak zenbait lurraldetan lan egiten duten GKE feministen berri emateko eskatu duelako. *“Poliziak zenbait lekutan lan egiten duten GKE-en zerrenda eskatu du, ordena publikoa mehatxuan jarriko bagenu bezala”* (3. saioa: Eragile sozialak).

Bizkaiko parte-hartzaileen iritziz, larregizko burokratizazioa, finantzaketa mugatua eta autonomiarik eza dira zeregin eraldatzailea garatzeko orduan dau-den egiturazko oztupoak.

Laburbilduta, emakume parte-hartzaileak bat zetozen ikustean parte-hartzaileek adierazi egin zutela indarkeria horiek unean uneko akatsak eta isolatutako arduragabekeriak ez zirela, erasotzailea babesten duen eta biktima zigortzen duen sistema instituzional patriarkalaren adierazpen sistematikoak baizik. Egoera horren ondorioz, isiltasuna, autozentsura eta, askotan, eremu publikoa uzteko erabakia dira nagusi. *“Izena jartzea sendatzen hastea da”* (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Pertsonen arteko indarkeriak eta indarkeria sinbolikoak jarduera politikoan

4.3

Oraindik ere, emakumeen jardun politikoan egiturazko oztopoetatik haratago doazen era guztietako oztopoak daude. Haien artean, pertsonen arteko indarkeriak eta indarkeria sinbolikoak nabarmentzen dira. Eraso-mota horiek sarritan araudietan eta protokoloetan erregistratzen ez badira ere, ezin eraginkorrakoak dira, botere-eremuetan dauden emakumeei zilegitasuna kentzeko, isilarazteko eta kanpoan uzteko.

Pertsonen arteko indarkeria jokabide zuzenen bidez adierazten da (oihuak, isekak, mehatxuak, mozketak edo gaitasuna kentzea), eta, ez dira batere anekdotikoak, urteen joan-etorrian bere horretan dirauten bazterkeria-ereduak dira-eta. Ez dute ageriko arrastorik uzten, baina aztarna emozionalak, higadura psikologikoa eta isolamendu politikoa sortzen dituzte. Indar handia daukate, egunez egunekoak direlako eta oso zaila delako horrelako indarkeriak salatzea emakumeak zalantzan jarri gabe edo erruduntzat jo gabe.

Bestetik, indarkeria sinbolikoa diskurtsoen, keinuen, isiluneen, adierazpideen edo jarduketa normalizatuen bitartez adierazten da. Hartara, genero-hierarkiak indartzen dira, eta erabaki-guneak emakumeenak ez direla dioen ideia sendotzen da. Indarkeria hori oso-oso sustraituta dago arlo kultural zein instituzionalean, oso sotila da, emakumeen esperientziei, jakitatei zein proposamenei ukatzen die balioa edo barregarri uzten ditu jendaurrean, gizartean baimenduta dagoenaren mugak gainditzen direnean.

Bi indarkeria-motak ohikoak dira Peruko nahiz Bizkaiko bizitza politiko eta instituzionaleko arlo askotan. Haien eragina ez da banakakoa bakarrik: modu kolektiboan diziplinatzeko mekanismoak direnez, beste emakume batzuei burutik kentzen diete lidergoa euren gain hartzeko asmoa, eta kultura politiko baztertzaila berregiten dute. Atal honetan, partekatutako lekukotasunetatik abiatuta, indarkeria horrek partaidetza politikoa ikuspegi feminista, komunitario edo eraldatzailearen bidez garatzen dutenen egunez egunekoan dituen era bateko zein besteko adierazpideak azaltzen dira.

Nahiz eta emakumeek politikan jasaten dituzten indarkeria askok egiturazko

sustriak dauzkaten edo modu sinbolikoan adierazten diren, saioetan hainbat eta hainbat lekukotasun partekatu ziren, instituzioetako eta alderdietako eremuetan pertsonen arteko eraso zuzenen berri emateko. Indarkeria horiek, ordea, ez dira batere anekdotikoak, isilarazteko, izen ona kentzeko eta isolatzeko estrategiak direlako, baina, batez ere, emakumeek lidergoa dutenean, agenda feministak dituztenean edo ezarritako ordena kolokan jartzen dutenean. Peruko eta Bizkaiko emakumeek egoera horiek bizi izan zituzten, eta adierazpideak desberdinak izan ziren landa-inguruneko edo hiriguneko testuinguruaren eta testuinguru instituzional edo komunitarioaren arabera, baina haien eraginak sakonak edo oso-oso gizonezkoak izan ziren modu berean.

Besteak beste, isiltasuna behin eta berriro erabiltzen da botere-modalitate gisa: agerraldiak ikusezin egitea, proposamenei jaramonik ez egitea edo emakumeek adierazitako ideiez jabetzea. *“Hitz egiten duzunean eta inork erantzuten ez duenean, zure hitzak hutsaren hurrengoia direnean, haiena izango balitz bezala gizonek zuk esan duzunari heltzen diotenean... horixe ere bada indarkeria”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Bi testuinguruetan bizi duten taktika hori emakumeei zilegitasuna kentzeko mekanismo sotil bezain suntsitzailea da.

Era berean, erratzean jendaurrean barregarri uzten dituztela salatu zen, ageriko postuetan dauden emakumeak, batez ere. *“Beti-beti ezin hobeto egotea eskatzen digute, ez erratzeko, hanka egiten baduzu, bizitza osoan gogoratuko dizutelako”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Gizonen errakuntzak, ordea, barkatu egiten dira, edo ezkutatu ere egiten dira.

Emakume parte-hartzaileek adierazi zutenez, oihuak, mehatxuak eta hitzezko jazarpena ere pairatu zituzten alderdi politikoetan edo eremu instituzional hierarkizatuetan, batez ere. *“Jendaurrean egin didate oihu, eta, alderdiaren gidalerroei eusten ez banien, bakarrik utziko nindutela mehatxatu zidaten”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Bizkaiko nahiz Peruko emakumeek eman zuten horrelako indarkeriaren berri, alderdiaren diziplina hausten dutenek edo hierarkiak kolokan jartzen ausartzen direnek, batez ere.

Are egoera mingarriagoak ere egon dira, hau da, horrelako erasoan erantzuleak pertsona hurbilak, aliatuak edo kideak izan direnean. Emakume parte-hartzaileen esanetan, emakumeen arteko konfiantza-lotuneei traizioa egitea

Arlo politikoan antzemandako indarkeria matxistak

lotura politikoak eta afektiboak suntsitzen dituen indarkeria-mota da. *“Egoera ezin latzagoa izan zen, taldeko gizonekin ondo geratzeko asmoz nire konfiantzakoa zen emakume batek botata utzi ninduenan”* (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Emakume asko ados egon ziren arlo pribatuaren eta publikoaren arteko harremanezko koherentziarik eza dagoela esatean: eremu informaletan babesak edo aitortza jasotzen badute ere, eremu formalean (esate baterako, bilerak, bozketak edo ekitaldi publikoak) izen ona kentzen diete, edo edonolako konplizitatea desagertzen da. *“Korridoreetan, babesak da nagusi, baina bozkatu behar denean edo osoko bilkuran hitz egin behar denean, ez dizute jaramonik egiten”* (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Halaber, salatu egin zen emakumeen agintea, zilegitasuna eta prestakuntza etengabe jartzen direla kolokan eta, horren ondorioz, bikaintasunaren eskakera neurrigabea dela erabat. *“Neuk hitz egiten dudanean, funtsez hitz egin behar dut, neure kopiak egin behar ditut, azpimarratu egin behar ditut... Gizonek, ordeak, ez dute ezer egiten. Jesarri egiten dira, eta zeri buruz ari diren ere ez dakite”* (2. saioa: Kontseilua). Bi testuinguruetakoa emakumeek eman zuten horrelako indarkeria sinbolikoaren berri.

Hiperagerikotasun zigortzailea ere izan zen nabarmendutako beste elementuetakoa: emakumeak ikusezin egiten dituzte, baina, horrez gain, eremua okupatzen dutenean, neurriz kanpo miatzen dituzte, eta haien janzkeragatik, hizkeragatik edo irribarreagatik ere kritikatzeko dituzte. *“Gizonek ziotenez, ez zuen merezi emakumeekin ezer egiterik, ez zutelako balio. Beraz, aretotik irteten nintzenean, kanpoan zeudela ikusten nuen eta sartzera ausartzen ez zirela, gizonen balio ez zutela sinetsarazi zirela”* (2. saioa: Kontseilua).

Peruko landa-testuinguru batzuetan, emakume liderrek indarkeria politiko ezin latzagoak salatu zituzten; esate baterako, jazarpena, ele txarrak edo nahitaezko itxialdiak ere bai. Horren aurrean, erresistentzia-prozesuei eutsi diete, eta tokian-tokian ere antolatuta dira, emakume bat bere kargua uztera behartzeko. *“Gorriak ikusi nituen, iseka egiten zidaten, kritikatu egiten ninduten, nire familiaren kontra hitz egiten zuten, izen ona belzten zidaten komunikabideetan... Are gehiago, udaletxean bertan ere itxi ninduten, kargua nahitaez utzi nezan”* (3. saioa: Eragile sozialak). Testuinguruaren arabera be-

reizitako adierazpideak dituen indarkeria-mota horrek antzeko elementuak partekatzen ditu euskal emakumeei ospe ona kentzeko eta hondoa jotzeko egin dizkieten kanpaineekin, emakumeek eurek azaldu zutenez.

Arlo sinbolikoan, etengabe salatu zuten gorroto-diskurtsoak eta irainak jasotzen dituztela eta zilegitasun morala kentzen dietela komunikabideetan, sare sozialetan edo legegintzako esparruetan ere bai. *“Hauxe esaten digute: kabiarrak, feminaziak, lodiak, itsusiak, inoiz ezer eduki ez dutenak, mari-mutilak... Lehen, hori guztia trollek esaten zuten sareetan, baina orain Kongresuan bertan”* (l. bilera: Munduko Emakumeak). Indarkeria sinboliko horrek bi testuinguruetako emakumeen artean eragina badauka ere, are gogorragoa da Peruko landa-inguruneetan eta tokian tokiko komunikabideetan.

Bestetik, haien esanetan, emakume antolatuak doktrinatzten dituztela leporatzen diete, landa-inguruneke emakumeekin edo gazteekin lan egiten dutenean, batez ere. *“Emakumeei burua jaten diegula leporatzen digute”* (l. bilera: Munduko Emakumeak). Zilegitasuna kentzeko prozesu horrek emakume liderren artean nahiz erakunde feministen artean dauka eragina.

Instituzioetan bertan, proposamen feministak barregarri uzten dituzte mesprezuzko edo isekazko adierazpideen bitartez. *“Zainketen sistema nazionala lelokeria dela esaten digute eta halakoak nola jaten diren”* (l. bilera: Munduko Emakumeak). Agenda feminista barregarri uzteko prozesua Perun nahiz Bizkaian gertatzen da, narrazioak bereiziak diren arren.

Halaber, ageri-agerian utzi zuten indarkeria sinbolikoak ukatzen dituztela eta desberdintasuna betikotzeko modu sotil bezain eraginkorra dela. *“Batzuetan, eremu mistoetan, egoeraren bat indarkeriazkoa dela aipatzen duzunean, egoera puzten ari zarela erantzuten dizute, sentikor zaudela... Kostata sinesten dizute”* (3. saioa: Eragile sozialak). Indarkeria hori testuinguru guztietan azaldu zuten.

Azkenik, zenbait emakume parte-hartzailek mugimendu sozial eta feministetan bertan dauden barruko tentsioen berri eman zuten, bertan gatazkak sortzen direlako indarkeriei zer izen jarri behar zaien edo zer diskurtso lehenetsi behar diren erabakitzeko orduan. *“Guk, seme-alaba arrazializatuak ditugun ama zuriok, gure elkartearen izena zein izan behar den erabakitzean*

Arlo politikoan antzemandako indarkeria matxistak

ere ez gara ados jartzen, bertan ez dauden gizonak saminduko ote diren beldur. Ez dugu feminismoa aipatu nahi” (3. saioa: Eragile sozialak). Desadostasun horiek zapalkuntza gurutzatuen konplexutasunaren ondorioz aliantzei eusteko orduan dauden zailtasunen erakusgarri dira.

Oro har, pertsonen arteko indarkeriak eta indarkeria sinbolikoak emakumeen partaidetza politiko baldintzatu eta mugatzen duen itxitura direnez, haien zilegitasunean, autonomian eta ongizate emozionalean dauka eragina. Ere-mu instituzional eta komunitario askotan normalizatuta dauden indarkeria-mota horiek zuzenean pairatzen dituzten emakumeei eraso egiten diete, baina, horrez gain, disuasio-mezua bidaltzen diete botere-gune edo ordezkaritza-guneetan egon litezkeen emakume guztiei. Horrelako indarkeriak aitortzea, izena jartzea eta aurre egitea ezinbesteko urratsa da benetan inklusiboa den demokrazia eratzeke orduan.

Indarkeria digital eta mediatikoa

4.4

Hipermediatizatuta dagoen gaur egungo testuinguruan, sare sozialak, komunikabideak eta teknologia digitalak partaidetza politiko eta sozialerako funtsezko eremuak direla kontuan hartuta, emakumeen aurkako indarkeriek berariazko adierazpideak dituzte, eta aurrekaririk gabeko azkartasunaz, krudelkeriaz eta irismenez hedatzen dira. Indarkeria horiek isilarazteko eta kontrol patriarkala ezartzeko mekanismo klasikoak berregiten dituzte, baina, horrez gain, handiagotu ere egiten dituztenez, tresna berriak ematen dizkiete, jendaurrean agerira ateratzeko, ospe ona kentzeko eta diziplina sinbolikoa jartzeko.

Honako hauexek kontuan hartzen dira indarkeria digitaletan: sareetan zuzenean jazartzea, informazio pertsonal edo intimoa baimenik gabe zabaltzea, kontuak hackeatzea, gorroto-diskurtsoak zabaltzea eta izen ona beltzeko kanpainak antolatzea. Gainera, iraunkorrak, nazioz haraindikoak eta biralak direnez, benetako mehatxua dira emakumeen osotasunerako, osasun mentalerako eta ibilbide politikorako.

Bestetik, indarkeria mediatikoek hizkuntza, irudien hautaketa, ahotsen ikuse-

zintasuna eta genero-estereotipoen errepikapena darabiltzate, emakumeei eragile politiko moduan daukaten zilegitasuna kentzeko. Estaldura sexista, berriro biktima bihurtzeko ikuspegia edo kontzeptu feministen erabilera ironikoa eremu publikoan botere-hierarkiak indartzen dituzten sistema sinbolikoaren parte dira.

Perun nahiz Bizkaian, prozesuko emakume parte-hartzaileek honelako esperientziak bizi izan zituztela azaldu zuten: komunikabideetan agerira ateratzea, eremu digitalean xaxatzea, instituzioek diskurtso feministak manipulatzeko eta beldurra kontrolerako tresna moduan erabiltzea. Formak eta testuinguruak aldatu egiten badira ere, funtsezko logika berbera da: emakumeei izen ona kentzea, haien agendak neutralizatzea eta eztabaida publikoan parte hartzeko gogoa kentzea. Horrelako indarkerien aurrean, honako hauxe ere sortzen da: erresistentzia kolektiborako estrategiak, komunikaziorako aliantzak eta hitzerako, irudirako zein eremu digitalerako eskubidea lortzeko lehia-tu beharreko lurralde politiko moduan aldarrikatzen dituzten jarduketa feministak.

Alde horretatik, saioetan parte hartu duten emakumeek eremu horietan pairatzen dituzten erasoak ez dira ez txikiak ez anekdotikoak. Izan ere, indarkeria matxistaren modalitate garaikidea dira, berehalakotasunaren eta anonimatuen babespean ahots disidenteak isilaraztea, barregarri uztea eta diziplinatzea dute helburu eta prozesuko parte-hartzaileak eurak modu egituratuan erresistentzia digital eta komunitariorako garatzen ari diren estrategien bidez erantzuten zaie. Perun zein Bizkaian, prozesuko emakume parte-hartzaileek partekatu zituzten indarkeria-esperientziek agerian uzten dute jarduketa horiek normalizatuta daudela eta ondorio suntsitzaileak sorrarazi ditzaketela maila emozional, politiko eta sozialean.

Indarkeria aipatuenetakoa sare sozialetan jasandako xaxaketa izan zen, eta irainak, mehatxuak nahiz gorroto-mezuak ditu ezaugarri bereizgarri, emakumeei zenbait gaitan lekurtzen direnean, batez ere; esate baterako, feminismoa, sexu-dibertsitatea edo giza eskubideak. *“Eduki feminista argitaratzen dudan bakoitzean, ezin konta ahala gorroto-iruzkin jasotzen ditut”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Sarritan, indarkeria horrek dimentsio sexualizatu eta pertsonalista dauka: *“ez dituzte nire ideiak kritikatzeko, nire gorputza, arropa eta hizkera baizik. Emagalduta naizela esaten didate, sukaldera itzuli behar*

Arlo politikoan antzemandako indarkeria matxistak

naizela eta norekin oheratu naizen hortxe egoteko” (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Peruko nahiz Bizkaiko emakume askoren esanetan, ospe ona kentzeko kanpaina antolatuak jasan dituzte, eta, horrez gain, haien irudi manipulatuak zabaldu, haien informazio pribatua iragazi edo albiste faltsuak argitaratu dituzte. *“Jendaurrean atera naute agerira nire Facebook pribatutik arpilatu zituzten argazkien bidez. Horrela jokatu zuten, beldurtu nendin eta hitz egiteari utzi niezaion” (1. saioa: Emakume hautetsiak). Beste emakume batzuek hackeatu egin zituztela eta haien eduki sexuala zabaldu zutela salatu zuten. “Emakumeak esan zidanez, ‘hackeatu egin ninduten’, baina ezin zen osoko bilkuretan egon, guztiek aplikazioa jaitسي eta ireki egiten zutelako... Ezin zuen. Lau hilabetez egon zen horrela” (2. saioa: Kontseilua).*

Era berean, ingurune intimoetan jasandako indarkeria digitaleko esperientziak jorratu ziren; esate baterako, irudi intimoak baimenik gabe erabiltzea kontrolerako eta mehatxurako mekanismo moduan. *“Adibide bat jartzearen, nik, emakume moduan, nire bikotekidearekin daukadan konfiantzan, argazki intimoa bidaltzen diot, eta berak ni lotsatzeko eta atxikitzeke darabil hori” (2. saioa: Kontseilua). Horrez gain, ez dute babeserako sistema eraginkorrik: “ez daukat salatzeke sistema argirik, berriro ere biktima bihurtu gabe”.*

Bi eskualdeetako emakume parte-hartzaileek babes digitalerako protokolo instituzionalik ez dagoela salatu zuten. Hori dela eta, euren babes-sare informalak sortu behar dituzte, arlo birtualean salaketa egitea lortzeko. *“Bera kontu hori erabiltzen ari dena ez dela dioten 100 kontaktu bilatu” (2. saioa: Kontseilua).*

Komunikabide tradizionalei dagokienez, indarkeria sinboliko mediatikoaren hainbat eta hainbat adierazpide aipatu zituzten. Bizkaian, berriro biktima bihurtzen dituen estaldura kritikatu zen. *“Behin, osoko bilkura batean egin nuen negar, eta lehen orrialdean argitaratu zuten: ‘Presioari eusten ez dion zinegotzia’. Gizonek negar egiten badute, ordea, sentikortasuna da. Nik negar egiten badut, aldiz, ahulezia da” (1. saioa: Emakume hautetsiak). Era berean, emakumeen agintea aitortzen ez dela azaldu zuten. “Komunikabideek gorbatahun gizona bilatzen jarraitzen dute politikari buruz hitz egiteke orduan, nahiz eta udalean gai hori daramana zeu zaren” (1. saioa: Emakume hautetsiak).*

Peruko emakumeek agerian jarri zuten tokiko ele txar mediatikoak jasaten dituztela, landa-inguruneetan edo hiri inguruetan, batez ere. *“Ustela nintze-la esaten zidaten herriko bozgorailuetatik, eta proiektuak kudeatzeagatik kritikatzan ninduten, emakume batek bere agintaldia arrakastaz betetzea lotsagarria izango balitz bezala”* (2. saioa: Kontseilua).

Aipatutako beste indarkeria-mota bat sektore ultrakontserbadoreek komu-nikabideetan garatutako instrumentalizazioa izan zen, gorroto-diskurtsoak zabaltzen dituztelako plataforma tradizional eta digitalen bitartez. *“Orain, se-kulakoak esaten dituzte; esate baterako, emakume batek minigona soinean badarama, bortxatua izateko arriskua du. Gainera, telebista nazionalan esaten dute, eta txalotu egiten dute”* (1. bilera: Munduko Emakumeak).

Partekatutako beste fenomenoetako bat aktibismo digital feministaren kri-minalizazioa izan zen, zaintza instituzionala eta mehatxu judizialak kontuan hartuta. *“M8an manifestaldirako deialdia egiteagatik baino ez, 700.000 euro-tik gorako isuna jarri ahal digute”* (1. bilera: Munduko Emakumeak).

Hezkuntzaren arloan, ingurune birtualetako sexu-indarkeriak salatzeagatik errepresaliak jasan zituztela azaldu zuten; esate baterako, lan-aukeretatik kanpo geratzea. *“Salatzen baduzu, ez duzu inoiz unibertsitate honetan lan egingo”* (3. saioa: Eragile sozialak).

Egoera oldarkorra izan arren, erresistentzia feminista digital eta mediatikoa-ren adibideak ere azaldu ziren, irrati komunitarioen eta autokudeatutako plataformen bidez egindakoak, batez ere. *“Gazteen Kontseilu Probintziala-ren bidez, irrati hartu dugu, sexu-jazarpenaren aurkako ordenantzak alda-rrikatzeko, esaterako. Neska gazteen hitzak badu botererik”* (La Sinsorgako saioa).

Oro har, indarkeria digital eta mediatikoak erasoaren zeharkako dimentsioa dira, eta egiturazko eragin bereizia dauka Peruko eta Bizkaiko emakumeen artean. Gainera, adierazpideak berariazkoak dira landa edo hiri ingurunearen, ingurune instituzionalaren edo aktibistaren arabera. Horrelako indarkeriek isiltasuna, izen onaren galera eta norberaren bazterketa indartzen dituzte, indarkeriatzat hartzen ez direnean, batez ere. Indarkeria horiek modu inte-gralean aitortzea eta jorratzea funtsezkoa da justizia eta berdintasuna kon-

tuan hartzen dituen partaidetza politiko eta sozialerako benetako baldintzak bermatzeko orduan.

Zapalkuntza-sistemek gurutzatutako indarkeriak: elkargunetzak

4.5

Emakumeek arlo politikoan pairatzen dituzten indarkeriak ez dira ez homogeneoak ez isolatuak. Bizkaiko eta Peruko emakume liderren arteko truke-prozesuan, agerian jarri zen generoa egiturazko desberdintasunaren beste dimentsio batzuekin gurutzatzen dela (esate baterako, adina, jatorri etnikoa, gizarte-maila, desgaitasuna, amatasuna, landatasuna edo migrazio-estatusa). Hori dela eta, berariazko bazterketa eta erasoak sortzen dira. Elkargunetzako indarkeria horiek aldi berean gertatzen dira, eta, askotan, ezin dira sumatu, nahiz eta emakumeen herritartasun politikoaren garapena sakon-sakon mugatzen badute ere.

Behin eta berriro aipatu zituzten dimentsioetakoak egiturazko arrazakeria eta eguneroko mikroarrazakeria izan ziren, emakume indigeneak, migratuek edo arrazializatuak jasaten dituztenean, batez ere. Emakume horien esanetan, haien gaitasun politikoa etengabe jartzen dute kolokan, haien jakintza historiko eta komunitarioa egiten dute ikusezin eta haien lidergoei zilegitasuna kentzen diete haien kidetza etnikoaren ondorioz. *“Kolokan jartzen dute lantzen ari denaren egoera historikoa zein den badakizun, orain dela gutxi joan zarenez...”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Horrelako indarkeria sinbolikoa eduki arrazialdun hitzezko erasoen bidez ere adierazten da; esate baterako, “zoaz eta ardiak eraman bazkatzera” edo “mari-mutilak” edo “kabiarrak” bezalako etiketa estigmatizatzaileak (1. bilera: Munduko Emakumeak).

Aldi berean, kapazismoa ere bazterkeriaren egiturazko beste modalitate bat dela salatu zuten. Emakume desgaituen esanetan, askotan subjektu politikoak direla ere ez diete aitortzen. Emakume desgaituen kasuan, honako hau xe adierazi zen: “gu geu, emakumeok, gara indarkeria hori pairatzen dugula ez dakigun lehenengoak” (2. saioa: Kontseilua). Kontakizun horretan, honako hau xe da nagusi: emakume desgaituak ikusezinak izatea eskubidedun subjektu moduan, zaintzaileek edo senideek zigorgabetasunez erabiltzea haien

aurkako indarkeriak eta oztopo fisikoak, komunikaziokoak eta jokabide-ar-lokoak egotea instituzio publikoetan. Funtsezko beste ardatz bat ere nabarmendu zen, instituzioek berriro biktima bihurtzen dituztelako irisgarritasunik ez egoteagatik: *“pentsiorik baduzu, zure senideek kudeatzen dute. Zuk zeuk ezin duzu ezer esan. Gainera, seme-alabarik baduzu, ez zaituzte amatzat hartzen”* (2. saioa: Kontseilua).

Emakume gazteek eta nagusiek adinagatiko bereizkeria jasaten dutela azaldu zuten. Gazteenek eremu politiko edo sozialetan etengabe umetzen dituztela salatu zuten, bertan ez direlako haien irizpidez fidatzen eta hitza ukatzen zaielako. *“Ezer ez dakiten umemokoak garela uste dute”* (3. saioa: Eragile sozialak). Bestetik, emakume nagusiek mugimendu sozial edo sindikaletan ikusezinak direla aipatu zuten, bertan ez dituztelako beti haien ibilbi-deak aitoritzen edo baloratzen.

Landa-ingurunean edo hiri inguruetan bizi diren emakumeei dagokienez, lurralde-bereizkeriaren berariazko modalitateak aipatu ziren; esate baterako, Internet, abegi-etxebizitzak edo oinarrizko zerbitzuak eskuratzean dauden desberdintasunak eta haien premien estigmatizazio zein ikusezintasun instituzionala. *“Esaten digutenez, hori zure herrialdean gertatzen da, baina he-mentxe ere jazotzen da. Hala ere, ezkutatu egiten da, edo ez da aipatzen”* (1. bilera: Munduko Emakumeak).

Gizarte-mailak ere gurutzatzen ditu esperientzia horiek. Emakume parte-hartzaile batzuek zenbait egoera izan zituzten hizpide; esate baterako, eze-gonkortasun ekonomikoa handiagoa da haientzat, are muga handiagoak dituzte eskubideak zein babes instituzionala lortzeko orduan eta ama-zeregina inposatzen dieten politikan parte hartzeko baldintza moral moduan. *“Seme-alabarik baduzu, zalantzan jartzen zaituzte haiekin ez zaudelako. Seme-alabarik ez baduzu, ordea, zeurekoia zarela leporatzen dizute”*, partekatu zuen Peruko emakume parte-hartzaile batek.

Emakume migratzaileek migrazio-estatusagatiko xenofobiaren eta bereizkeriaren esperientzia argiak azaldu zituzten; esate baterako, haien indarkeria-esperientziei zilegitasuna kentzea eta abegirako testuinguruetan bizi dituzten zailtasunak ikusezinak izatea. Unibertsitateetan eta antzeko prestakuntza-guneetan, bereizkeria hori ere bada agerikoa: *“ez dute jazarpena sa-*

Arlo politikoan antzemandako indarkeria matxistak

latzen, lanik lortuko ez ote duten beldur. Unibertsitatea hierarkikoa, elitista eta oso-oso arrazista da” (3. saioa: Eragile sozialak).

Erakunde feministetan eta mugimendu sozialetan bertan ere gertatzen dira tentsio horiek; esate baterako, egiturazko arrazakeria aipatzeko erresistentziak, elkargunetzako ikuspegia kontuan ez hartzeagatik barruko hausturak eta feminismo zurian bertan egiturazko desberdintasunak daudela ez onartzeko joera. *“Arrazakeriaren aurka borrokatzen ari diren amak garela esatearren baino ez, emakume kide batzuk mindu egiten dira. ‘Feminista’ erasten badugu, ordea, badirudi bertan ez dauden aitak baztertzen ditugula” (3. saioa: Eragile sozialak).*

Azkenik, emakume parte-hartzaile askok behin eta berriro adierazi zuten indarkeria ugari horiek ez direla batzen, berezko ikuspegiak behar dituzten berariazko errealitateak sorrazten dituztelako. Eremu feminista edo aurretakoietan bertan ere barruko hierarkiak berregiten direnez eta babeserako mekanismo instituzional egokirik ez dagoenez, bereizkeria-mota bat baino gehiago pairatzen duten emakumeen bazterkeria indartzen da. *“Sistemak gu higtzea du helburu”, laburbildu zuen emakume zinegotzi migratzaile batek” (1. saioa: Emakume hautetsiak).*

Begirada horren bidez, premia-azkoagoa da elkargunetzako ikuspegia kontuan hartzea tresna analitiko moduan nahiz proposamen politiko moduan, aliantza sendoak, elkarren arteko zainketak eta babes integralerako esparruak eratu daitezen eta inor atzean geratu ez dadin.

Arlo politiko eta sozialeko indarkeria ikusezinak

4.6

Instituzioek, indarkeria darabiltenek eta, batzuetan, indarkeria bizi dutenek ere erraz antzematen ez dituztenak dira indarkeria ikusezinak. Sotilak, iraunkorrak eta egiturazkoak dira, eta honako hauexen bidez adierazten dira: emakumeen eskubide politiko eta sozialen erabateko erabilera zailtzen duten keinuak, harremanezko dinamikak, isiluneak edo desberdintasunezko eskaerak. Ikusezinak dira, baina ez haien eragina txikiagoa delako, historiari begira

normalizatu eta isilarazi egin direlako baizik, ohituran, arteztasun instituzionalean edo lotune komunitarioen hauskortasunean oinarritutako agintaldi patriarkalpean.

Indarkeria horiek arau-esparruetatik eta arreta-protokoloetatik kanpo geratu ohi direnez, babesgabetasun bikoitza sortzen da: ez dira erregistratzen, ez zaie arreta ematen eta, aldi berean, eragin sakona dute gehien pairatzen dutenen artean, hau da, emakumeen artean. Lidergo politikoko, aktibismoko edo militantziako testuinguruetan, ikusezintasun horrek oso ondorio larriak eduki ditzake, emakumeek erabaki-guneetan dituzten buru-estimua, sinesgarritasun publikoa eta iraupena higatzean.

Indarkeria horiei izena jarri nahi izanez gero, kontzientziatzeko, entzuteko eta esperientziak baliozkotzeko prozesu kolektiboa garatu beharra dago, eta, horretarako, ezinbestekoa da elkargunetzako eta konfiantzako eremu feministetatik lan egitea. Emakume parte-hartzaileen esanetan, “gertatzen zaidan hori ere bada indarkeria” aitortzean, konponketarako eta erresistentziarako prozesua jarri daiteke abian.

Topaketen zikloan bertan, ozen-ozen hitz egin zuten nekez izendatu, frogatu edo aitortu daitezkeen indarkeria-motei buruz. Indarkeria sotilak, iraunkorrak eta normalizatuak dira, eta ez ohi dira agertzen ez diskurtso publikoetan ez protokolo instituzionaletan, baina eragin zuzena daukate emakumeen ibilbide politiko, sozial eta emozionalean. Eragina dute haien buru-estimuan, haien sinesgarritasun publikoan eta partaidetza-guneetan duten iraunkortasunean. Emakume parte-hartzaile baten esanetan, “askotan, zer gertatzen zaizun nola azaldu dezakezun ere ez dakizu, badirudielako ezer gertatzen ez dela, baina sentitu egiten duzu. Badirudi ikusten ez zaituztela” (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Behin eta berriro aipatzen zituzten indarkerietakoa modu sinboliko eta politikoan ez aitortzea izan zen. Emakumeek honako arlo hauetako ohiko dinamikak azaldu zituzten: gutxiestea, ideiez jabetzea eta erabaki-guneetan isilaraztea. “Zuk proposamena egiten duzu, baina ez dute entzuten. Gero, gizon batek errepikatu egiten du, eta, orduan, bai, txalotu egiten dute” (1. saioa: Emakume hautetsiak). Ikusezintasun horren ondorioz, frustrazio eta segurtasun-falta sakonak sortzen dira, eta, askotan, azkenean, bertan behera uzten

Arlo politikoan antzemandako indarkeria matxistak

dituzte eremu horiek.

Isiltasun horretaz gain, erruduntasuna ere bada etengabea, eta honelaxe adierazten da: hobeintasunaren eskaera, larregi justifikatzeko premia eta gehiegizko autoeskaera. Emakumeek beti-beti euren zilegitasuna frogatu behar dutela sentitzen dute: *“badirudi une oro egiaztatu behar dugula balio dugula, merezi dugula... Gainera, heltzen ez bazara, errua zurea da”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Nork bere buruari behar besteko errendimendua inposatzea presioa ez ezik, higatzeko egiturazko sistema ere bada.

Bestetik, emakumeen arteko harremanezko indarkeriak ere nabarmendu ziren, askotan ahizpatasunaren aurreikuspena hausten dute-eta. Zenbait emakume parte-hartzailearen esanetan, emakumeen taldeetan bertan judizioak, bazterkeriak edo tentsioak daude, eta agintaldi patriarkalpean berregiten dira. *“Batzuetan, beste emakume batzuk dira gehien epaitzen zaituztenak eta isolatzen zaituztenak, aurreikusitako ereduarekin bat egiten ez baduzu”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Tentsio horren ondorioz, oinazea, mesfidantza eta zailtasuna sortzen dira, era askotako emakumeen arteko aliantzei eusteko orduan.

Eremu unibertitario eta militanteetan, salatu egin zen zilegitasuna kentzeko keinu sinbolikoak daudela normalizatuta; esate baterako, amore ematea, barregarri uztea, umetzea eta hizkuntza sexista sotila erabiltzea. *“Astunak, ahozabalak bagina bezala tratatzen gaituzte. Gainera, zerbait salatzen dugunean, alde batera uzten gaituzte, edo gatazkatsuak garela diote”* (2. saioa: Kontseilua). Aliatuak omen diren inguruneetan horrelako indarkeria sinbolikoa gertatzea oso mingarria da, antzematen ez delako edo txikiagotu egiten delako.

Era berean, indarkeria instituzional ikusezinak ere aipatu zituzten; esate baterako, zerbitzu publikoetan banakakoa ez den tratua ematea edo berriro ere biktima bihurtzea, langileek genero-ikuspegia kontuan hartzen duen prestakuntzarik ez edukitzea, txandaketa etengabea denez konfiantzako lotunerik ezarri ezin izatea edo emakume dibertsoei (desgaituak, migratuak, indigenak eta adinekoak) modu aktiboan ez entzutea. *“Emakumeek ez dute salatzeri joan nahi, badakitelako berriro ere biktima bihurtuko dituztela. Zerbitzuetan, ez dago ez adeitasunik ez kalitaterik”* (2. saioa: Kontseilua).

Landa-inguruneetako eta jatorrizko erkidegoetako emakumeek adierazi zuten, politika publikoek ez dute lotunerik lurraldearekin eta ez dute kontuan hartzen ez dagoela ez konektibotasunik, ez abegirako etxebizitzarik, ezta ketxua, aimara edo antzeko jatorrizko hizkuntzetako interpreterik ere. *“Gure erkidegoetan, Internetik ez badago eta abegirako etxebizitzarik ez badago, nola salatuko dira indarkeriak?”* (2. saioa: Kontseilua). Egiturazko desberdintasun horren ondorioz, bizitakoa indarkeria dela ere ez dago esaterik.

Beste ikusezintasun bat ere azpimarratu zen, hau da, hirugarren sektoreko zenbait giza taldetan eta berariaz feministak ez diren antolakuntza-eremuetan gertatutakoak. Salatu egin zen batzuetan ez dela feminismoa aipatzen ez diskurtsoetan ez erakundeen izenetan, sektore jakin batzuk haserretu egingo ote diren edo kanpoan geratuko ote diren beldur. *“Emakume batzuek ez zuten feminista hitza erabiltzerik nahi, bertan ez zeuden aitzak kanpoan geratuko ote ziren beldur. Aita horiek, ordea, ez daude bertan, ez dute parte hartzen eta ez dute hazten”* (3. saioa: Emakume liderrak). Erresistentzia horiek ez datoz beti giza talde feministetatik, beste kausa sozial batzuk helburu dituzten erakundeetatik baizik, oraindik ere ez dutelako begirada feminista kontuan hartzen euren azterketetan eta aldarrikapenetan. Halaber, aipatu egin zen zeinen zaila den antolakuntza-eremuetan bertan dauden sexu-indarkeriak aitortzea. Hori dela eta, sendaketarako eta justiziarako prozesuak oztokatzen dira. *“Ezin dugu aurrera egin, zer gertatzen den aipatzeko gai ere ez garelako”* (3. saioa: Emakume liderrak).

Prestakuntza-eremuetatik, emakume askok partekatu egin zuten laguntasun feministaren bidez baino ez zirela konturatu indarkeria jasaten ari zirela. *“Manuela Ramos ezagutu arte, ez nekien bizi nuena jazarpen politikoa zenik. Uste nuen arrunta zela emakumea izateagatik erdeinatua izatea, irainak jasatea edo giltzapetuta uztea”* (3. saioa: Emakume liderrak). Bizitakoari izena jartzeko prozesu hori erresistentziarako eta konponketarako egintza zela adierazi zuten.

Munduko Emakumeekin egindako bileran, begirada hori zabaldu zen, eta indarkeria instituzional eta judizial ikusezina jarri zen agerian; esate baterako, frogak desagertzea, lege-babesik ez edukitzea, zainketen lana ikusezin egitea edo emakumeen aurkako indarkeria polizialak eragina duela ukatzea. *“Espainian, ez dago emakumeen aurkako indarkeria polizialari buruzko da-*

Arlo politikoan antzemandako indarkeria matxistak

turik. Bilatzen ditugunean, ez dago” (1. bilera: Munduko Emakumeak). Zenbait emakumek partekatu zituzten esperientzietan, sistema judizialak kontrasalaketen edo zehapen ekonomikoen bidez erantzun zuenez, berriro ere biktima bihurtu zituztela sentitu zuten.

Askotan, horrelako indarkeriak lortutako neutraltasunaren edo berdintasunaren diskurtsopean garatzen dira, instituzio formaletan, batez ere. Bertan, hain zuzen ere, egiturazko indarkeriak ikusezin egiten dira “ideologikotzat” edo “larregizkotzat” hartzen direlako. Emakumeen esanetan, ez dute salatu nahi, lana, babesa edo zilegitasuna galduko ote duten beldur. Halaber, diskurtso mediatikoak ere kritikatu zituzten, estereotipoak indartzen dituztelako edo ahots pasiboa darabiltelako erasotzailea ezkutatzeko eta jasandako kaltea hutsaltzeko.

Oro har, indarkeria ikusezinak desberdintasunaren egituren zementua dira: ez dira ikusten, eta ez dira aitortzen, baina sakon-sakon baldintzatzen dituzte emakumeen eskubideen erabilera eta partaidetza politikoa. Nabarmendu zutenez, modu kolektiboan aipatzea ezinbesteko urratsa da desegiten has-teko orduan. *“Izena jartzea sendatzen hastea da”* (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Askotan ikusezinak diren indarkeria horien aurrean, emakume parte-hartzaileek euren esperientziak partekatu dituzte, baina, horrez gain, egunez eguneko erresistentziarako estrategiak ere jarri dituzte abian, baita elkarren arteko laguntzarako sareak eta haien ibilbide politikoak sendotzeko hausnarketa kolektiborako prozesuak ere. Beraz, topaketen ziklo hau eta erakunde feministen zeregina funtsezkoak izan dira izendaezinari izena jartzeko, interpretaziorako esparru partekatuak sortzeko eta, bizipenetik bertatik, hizkuntza politiko berriak eratzeko orduan. Zainketarako, oroimenerako eta salaketarako jarduketa horiek defentsarako erantzunak dira, baina eraketa politiko feministarako modu aktiboak ere bai, emakumeen lidergoaren zilegitasuna berresten dutelako eta bidezkoagoa, seguruagoa nahiz eraldatzaileagoa den partaidetzarako bidea urratzen dutelako.

Oro har, kapitulu honetan aztertutako indarkeria-mota guztiak (egiturazkoak, instituzionalak, sinbolikoak, digitalak, pertsonen artekoak, elkargunetzakoak eta ikusezinak) ez dira isolatuak. Aitzitik, egitura sistemikoa eratzen dute, el-

karren artean indartzen dira eta, horren ondorioz, emakumeek ez dute euren eskubide politiko eta sozialak bete-betean erabiltzerik. Horrelako indarkeriak gurutzatu egiten direnez eta aldi berean gertatzen direnez, oso eragin ankerra dute hainbat bazterretan bizi direnen artean. Hori dela eta, indarkeria horiek ulertzea eta jorratzea integrala, elkargunetzakoa eta eraldatzailea izan behar da, eta, haien eragina ez ezik, emakumeek haiei aurre egiteko asmoz abian jartzen dituzten era guztietako agentziak ere aitortu behar dira.

Egoera horrelakoa bada ere, prozesuko emakume parte-hartzaileak ez ziren biktimaren ikuspegitik lekuratu, oso-oso politikoak diren erantzun kolektibo eta sortzaileen eraketatik baizik. Hurrengo kapituluan, erresistentziarako eta eraldaketarako estrategiak izango ditugu hizpide, eta emakumeek eurek euren lurraldeetatik ehundu dituzte, indarkeria horiei aurre egiteko eta boterearen zein justiziaren zentzuen alde borrokatzeko.



PARTEKATUTAKO KONTAKIZUNAK eta ESPERIENTZIAK



Partekatutako kontakizunak eta esperientziak

Topaketen zikloari esker, testuinguru bakoitzeko indarkeriak zein estrategiak antzeman ziren, eta, horrez gain, entzunaldi kolektiborako, elkarriketa politikorako nahiz zentzu partekatuen eraketarako eremua ere ireki zen. Bizkaiko eta Peruko emakume hautetsien, lider komunitarioen, aktibista feministen eta gizarte-erakundeetako ordezkarien ahotsen bitartez, diagnostiko kokatuak zein azterketa gurutzatuak egin ziren, lotune afektibo nahiz politikoak ezarri ziren eta arlo politikoko indarkeria matxisten inguruko begirada aberastu zen. Banakako esperientzien baturatik haratago, kapitulu honetan nazioz haraindiko trukearen balio politikoa azaltzen da, emozioak, gorputzak, oroimena eta aliantzak bizirik dagoen erresistentzia feminista eraldatzaileen funtsezko ardatz moduan kokatzen direlako.

Punoko ahotsak

5.1

Punoko emakumeek topaketen zikloan egindako ekarpenei esker, argi eta garbi antzeman zen zein diren emakume lider komunitarioek, politikariek eta aktibista feministek Peruko hegoaldeko Andeetako landa-testuinguruan pairatzen dituzten indarkerien lurralde, instituzio eta kultura arloko berariaz-kotasunak.

Elkargunetzako ikuspegiaren bidez, egiturazko hainbat indarkeria jarri ziren agerian. Honako hauexek dira, besteak beste: udal-arloko jazarpen politiko sistematikoa, emakume indigenen edo jatorrizkoen aurkako arrazakeria instituzionala, aktibismo feministaren kriminalizazioa, babesgabetasun juridikoa eta zerbitzu publikoak, Internet edo salaketa-sistema egokiak eskuratzeko orduan dagoen arrakala iraunkorra. Indarkeria horiek, ordea, ez ziren egitate isolatu moduan deskribatu, botere politiko, judizial, akademiko eta mediatikoko eremuetan errepikatzen den bazterkeria-sistemaren parte moduan baizik.

Aldi berean, emakumeek eurek euren lurraldeetatik erresistentziarako garatu dituzten estrategia kolektiboak zehaztu ziren; esate baterako, salaketarako eta prestakuntzarako tresna moduan darabiltzaten irrati komunitarioak sortzea; kaleko jazarpenaren aurkako ordenantzak egitea; erabakitzekeo gaitasuna duten gazte-kontseiluak sortzea; artea eta herri-kultura erabiltzea baliabide pedagogiko moduan; eta belaunaldien arteko aliantzak ezartzea, sare komunitarioari eta ekintza politikoari eusteko.

Arbasoen mundu-ikuskerak eta naturarekiko harremanak ekintza politiko feministaren sostengu espiritual, sinboliko eta etiko moduan betetzen duten lekua ere izan zen funtsezko beste ardatz bat. Patxamamarekiko lotunea ez da kulturala bakarrik, zainketak, oreka, elkarrekikotasuna eta justizia ulertzeko modua egituratzen duelako.

Parte-hartzaileek euren genealogia feministari ere eman zioten balioa, haien erresistentzia-jarduketa asko generoaren edo giza eskubideen arloan instituzionalizatutako kategoriak baino lehenagokoak direla adierazi zuten-eta. Alde horretatik, feminismoaren irakurketa kokatua izan behar dela diote eta ez unibertsalista, hau da, lurraldea, jarduketa kolektiboak eta herri-jakitaeak izan behar dituela abiapuntu.

Labur-labur esanda, Peruko emakumeen ahotsek zikloaren azterketa aberastu zuten, lurralderatutako elkargunetzako oso ikuspegi politikoa eskaini zutelako eta botere-egiturei zein feminismoaren interpretaziorako esparru hegemonikoei aurre egiten dielako. Haien kontakizunei esker, indarkeria egiturazko fenomenoak dela ulertzen da, baina erresistentzia eguneroko prozesu sortaile eta eraldatzailea dela ere bai.

5.2 Bizkaiko ahotsak

Bizkaiko emakume hautetsiek, lider sozialek eta elkarte-sareko ordezkariak partekatutako esperientziei esker, emakumeen partaidetza politikoak modu formalean sendotutako testuinguru instituzionalean zer muga, tentsio eta ahalmen dituen zehaztu zen. Garatuago dauden berdintasun-egiturak di-

Partekatutako kontakizunak eta esperientziak

tuen ingurune demokratikoa bada ere, emakume parte-hartzaileek agerian utzi zuten oraindik ere era askotako indarkeria sinboliko, instituzional eta harremanezkoak daudela eta, horren ondorioz, zaila dela euren eskubide politikoak erabat erabiltzea.

Bizkaiko emakume politikarien, aktibisten eta gizarte-ordezkarien esperientziei eta ekarpenei esker, sakonago aztertu ziren iparralde globaleko testuinguru instituzionaletan gertatzen diren indarkeria matxisten berezko ezaugarriak. Nahiz eta esparru demokratikoan jardun eta berdintasunerako legeak zein partaidetzarako egitura formalak eduki, emakume parte-hartzaileek argi eta garbi salatu zuten zein diren haien ekintza politikoa mugatu eta haien ongizate pertsonalean eragina duten indarkeria sinbolikoak, instituzionalak eta pertsonen artekoak.

Besteak beste, nabarmendu egin zuten gizondutako kultura politikoak bere horretan dirauela, botere-hierarkiak berregiten dituela, emakumeen ekarpenak ezkututzen dituela eta etengabe eskatzen diela esparru publikoan egoteko besteko zilegitasuna dutela egiaztatu dezatela. Eskakizun hori are larriagoa da, autoeskaera emozionala handia delako, eraginkortasunaren, hobeintasunaren zein prestasunaren aginduak barruratzten direlako eta, horren ondorioz, higadura, erruduntasuna eta gainkarga mentala handiak direlako.

Era berean, emakume parte-hartzaileek adierazi zutenenez, normalizatutako indarkeria instituzionala dago, salaketak txikiagotzen direlako, erabaki-guneetan destaina egiten dietelako, indarkeria politikoari erantzunik ematen ez diotelako eta babeserako edo konponketarako benetako egiturarik ez dagoelako. Nahiz eta protokoloak eta eremu formalak dauden, askotan ez dira eraginkortasunez edo behar beste ezartzen, edo ezarpen sinbolikoa baino ez dute.

Indarkeria horiekin batera, behin baino gehiagotan aipatu zituzten mugimendu feministetan eta instituzio aurrerakoietan bertan dauden barruko tentsioak. Bertan, hain zuzen ere, benetako elkargunetzarik ez dagoenez eta pribilegioak kolokan jarri nahi ez dituztenez, ez dago beste era bateko esperientziak aitortzerik. Oraindik ere, emakume gazteek, migratuek, arrazializatuek edo desgaituek oztopo sinboliko eta praktikoei aurre egin behar diete,

erabakiak hartzeko guneetatik kanpo uzten dituzte-eta.

Erresistentziarako estrategia moduan, emakume parte-hartzaileek nabarmendu egin zuten zeinen garrantzizkoa den emakumeen arteko sareak egotea zilegitasunerako, zainketarako eta ekintza kolektiborako eremu moduan. Instituzioetan bertan eta hortik kanpo eratutako sare horiei esker, baliabideak partekatzen dira, indarkeriaren aurrean babesten dira eta itxaropen politikoari eusten diote. Horrez gain, azpimarratu egin zuten prestakuntza feminista, komunikazio eraldatzailea eta eragin egituratua funtsezkoak direla kontakizun hegemonikoari aurka egiteko eta instituzioak barrutik eraldatzeko tresna moduan.

Bestetik, funtsezkoa ere bada lurraldeekin, mugimendu sozialekin eta aurretiazko ibilbide kolektiboekin lotuta dagoen partaidetza politiko kokatuaren aldeko apustua egitea. Lotune horri esker, zilegitasun komunitarioari eusten zaio, isolamendu instituzionalari aurre egiten zaio eta proposamenak eurak behetik eratzen dira.

Azken batean, Bizkaiko emakumeen ahotsek berdintasun formalaren mugei buruzko begirada kritikoa eskaini zuten, sendotutako demokrazietan bertan genero-bazterkeriari eusten dioten mekanismoak salatzean. Aldi berean, haien ekarpenek honako haxe aldarrikatzen dute: kolektibotasunaren indarra, zainketen zentraltasuna eta bere burua defendatu ez ezik boterea erabiltzeko sistemak goitik behera ere eraldatzen dituen politika feministaren premia.

5.3 Lotuneak eta desadostasunak: nazioz haraindiko elkarrizketak

Bizkaiko eta Punoko emakumeen trukeak eremu emankorra sorrarazi zuen, testuinguruaren, indarkerien eta erresistentzien azterketa erkatua egiteko. Gainera, egiturazko lotuneak nahiz alde adierazgarriak zehazteko aukera eman zuen, lurralde bakoitzean partaidetza politiko feministaren baldintzak eratzen dituztela kontuan hartuta. Hierarkiak edo biktima bihurtzeko diskurtsoak sortu beharrean, nazioz haraindiko elkarrizketa horiek entzunaldi kokatu eta

Partekatutako kontakizunak eta esperientziak

horizontala sustatu zuten, eta, bertatik, ikaskuntza partekatuak, elkarren arteko aitortza eta borroka feministen ikuspegi handiagotua sortu ziren.

Egiturazko lotuneen artean, azpimarratu egin zen patriarkatu instituzionalak bere horretan dirauela eta honako adierazpide hauek dituela: jazarpen politikoa, emakumeen lidergoei zilegitasuna kentzeko prozesua eta emakumeek erabakiak hartzeko guneetan etengabe jasaten duten bazterkeria. Bizkaiko zein Punoko emakumeek adierazi zuten, euren balioa egiaztatu behar dute etengabe, gizondutako egitura hierarkikoei egin behar diete aurka eta umetu, sexualizatu edo izen ona kentzen dieten narrazioei aurre egin behar diete. Bi testuinguruetan, ageri-agerian jarri zen higadura emozional handia ere jasaten dutela isolamenduaren, gainkargaren eta indarkeria sinboliko iraunkorraren ondorioz.

Nolanahi ere, kontakizunek desberdintasun handiak ere jarri zituzten agerian. Bizkaiko testuinguruan, emakume askok babeserako lege-esparru sendoa-goak dituzte, genero-ikuspegia instituzionalizatuago dago eta salaketarako mekanismo formal gehiago dituzte eskuragarri. Punon, ordea, estatuaren egiturazko ahulezia, zigorgabetasun sistematikoa eta aktibismoaren kriminalizazioa nabarmendu zituzten, emakume lider komunitarioak arrisku fisiko, juridiko eta sozial handiagoko testuinguruan bizi dira. Desberdintasun horren ondorioz, Andeetako hegoaldean erresistentziarako estrategia deszentralizatuagoak, sortzaileagoak eta komunitarioagoak dituzte, Euskadiko mekanismo instituzionalizatuagoen aldean.

Ekintza politikoaren arloan, bi eskualdeek erresistentziarako sistema kolektiboak garatu dituzte; esate baterako, emakumeen sareak, autokudeatutako prestakuntza feminista, eremu kultural eta komunitarioen erabilera edo eragin politikorako partekatutako agenden eraketa. Nolanahi ere, Andeetako esperientziak balio bereziko dimentsioa eskaintzen du arbasoen jakitateak, mundu-ikuskerak komunitarioak eta elkarrekikotasunaren etika sakona integratzean, eta instituzionalizatutako feminismoaren esparru eurozentrikoak jartzen dituzte kolokan. Ekarpene hori aberasgarria izan zen erabat, eta Europako feminismo hegemonikoaren mugak berrikusi beharko lirakeela jarri zuen mahai gainean.

Euskadiko eta Peruko emakume liderren arteko elkarriketari esker, norbe-

rarena ere berrirakurri zen besteen begiradaren bidez. Bizkaiko emakumeek Punoko indarkeriari eta erresistentziari buruzko kontakizunak entzun zituztenean, konturatu egin ziren indarkeria batzuk naturalizatuta, instituzionalizatuta edo ezkutatuta egon daitezkeela iparralde globalean. Aldi berean, Peruko emakumeek borrokarako dituzten estrategiak sendotu ditzaketen tresnak eta esparruak antzeman zituzten Bizkaiko emakumeen esperientzietan.

Oro har, nazioz haraindiko jarduera horri esker, jakitate politikoen zirkulazioa, zenbait eratako ibilbideen aitortza eta desberdintasunaren errespetuan oinarritutako aliantzen eraketa sustatu ziren. Homogeneotasunak edo translazio mekanikoak bilatu beharrean, zikloak lurralderatutako eta elkarrizketarako feminismo anitza irudikatzeko aukera eman zuen, hau da, elkarren menpekotasun globalaren eta tokian tokiko erroketaren bidez era guztietako indarkeria patriarkalei aurre egiteko gai den feminismoa.

5.4 Kontakizunetako emozioak, gorpuztasunak eta oroimenak

Topaketen zikloan oso indartsu agertu ziren zeharkako beste elementuetako bat bizitako indarkerien eta eratutako erresistentzien dimentsio emozional eta korporala izan zen. Bigarren mailako planoan geratu beharrean, emozio partekatuak (beldurra, amorrua, tristura, ezintasuna, nekea, baina alaitasuna, itxaropena, harrotasuna eta samurtasuna ere bai) nagusi izan ziren emakumeen narrazioetan. Izan ere, politizaziorako baliabidea, oroimen kolektiborako bitartekoa eta eraldaketarako tresna da.

Azaldutako esperientzietan ikusi zenez, emakumeen gorputza botereak gurtzatutako lurralde politikoa da berez. Indarkeria sinboliko, instituzional eta fisikoek haien ibilbide politiko edo lan-ibilbideetan dute eragina, baina haien osasun fisiko eta mentalean, eremu publikoetan lekurtzeko duten moduan eta haien harreman afektibo zein komunitarioetan ere bai. Gainkarga emozionala, beldur iraunkorra, barruratutako erruduntasuna edo autoeskaera iraunkorra sistema patriarkalaren adierazpideak direla eta maltzurtasunez dihardutela adierazi zuten, gorputzak diziplinatzen dituelako eta bizitza publikoan parte hartzen duten emakumeen buru-estimuan dutelako eragina.

Partekatutako kontakizunak eta esperientziak

Horren aldean, esperientzia horiek judiziorik gabeko entzunaldiaren bidez eremu seguruetan partekatzeko aukera ahizpatasunerako eta konponketa-rako egintza moduan bizi izan zuten. Alde horretatik, zikloak batzuen esanetan oroimen emozional partekatua izan daitekeenerako eremua irekitzeko abagunea eman zuen, kaltea aitoritzen duelako eta ikaskuntzak, landutako lotuneak nahiz modu kolektiboan elkarri eusteko moduak agerian jartzen dituelako. Elkar balioztatzeko prozesu horri esker, banakako ezinegona albo batera utzi eta emozioen egiturazko ulerkuntza sortu zenez, isolamendua desagertu eta kontzientzia politiko bihurtu zen zaurgarritasuna.

Horrez gain, aitortu egin zen emozioa ekintza politikoaren sustatzailea ere badela. Bidegabekeriaren ondorioz sortutako haserrea, bizitako indarkeriengatik oinazea edo zigorgabetasunaren aurrean sortutako amorrua antolakuntza-indar, justizia-eskaera eta alternatibak irudikatzeko sormen bihurtzen dira. Modu berean, jardun politikotzat hartutako alaitasuna funtsezko elementua dela aldarrikatu zen, eraldaketa-prozesuei eusteko orduan. Umorea, jokoa eta artea desobedientzia emozionalerako tresna moduan agertu ziren diziplitina-tzea eta lotuneak haustea helburu daukan sistemaren aurrean.

Halaber, oroimen historiko feministaren zeregina ere izan zen nabaria, baina Punoko emakume liderren kasuan, batez ere, gaur egungo esparru instituzionalen aurretiazko borroka-genealogiei eman zietelako balioa. Erritoen, sinboloen eta ahozko narrazioen bitartez, emakume horiek oroimen kolektiboak berreskuratu eta igortzen dituzte, eta, horrela, kidetza bera, jarraitasuna zein justizia sendotzen dituzte. Bizkaiaren kasuan, oroimen feminista anitzaren alde lan egiten jarraitu beharra dagoela aipatu zuten, emakume dibertsoen ekarpenak aitortu daitezen, askotan kontakizun ofizialek isilarazi edo ikusezin egiten dituztelako.

Oro har, emozioen, gorpuztasunen eta oroimenen azterketak agerian utzi zuen ezinegonaren politizazioan indarkeriak aipatu behar direla, gorputzetan nahiz lotuneetan sorrarazten dituzten ondorioak aitortu behar direla eta konponketarako zein erresistentziarako baldintza material, afektibo eta sinbolikoak eratu behar direla. Hartara, emozioak ez dira arrazoi politikoaren beste aldean dagoen dimentsioa, borroka feministak bizitza zehatz, gorpuztu eta kolektiboan ainguratzen dituen indar eraldatzailea baizik.

5.5 Lotuneak zein sareen sorrera eta salaketa publiko bateratua

Topaketen zikloak utzi zituen ikaskuntza ahaltsuenetakoaren bidez, egiaztatu egin zen badagoela emakume dibertsoen arteko (lurralde, ibilbide eta belau-naldi desberdinetakoak) egituraketa gauzatzerik eta horrez gain, premiazkoa eta eraldatzailea ere badela. Peruko eta Bizkaiko testuinguruak desberdinak badira ere, emakume parte-hartzaileek azkar-azkar erreparatu zieten honako arlo hauetan bizitako antzeko esperientziei: egiturazko indarkeria, isolamendu politikoa, zilegitasuna kentzeko prozesu instituzionala eta isiltasun sinbolikoa. Hori dela eta, elkarren aitortzarako zubiak ezarri eta konfiantzako lotuneak sortu ziren haien artean.

Lotune horiek ez ziren arlo afektibora mugatu, ordea. Prozesuan bertan, hain zuzen ere, eratzen ari den nazioz haraindiko sare politikoa sortu zen, eta honako hauexek ditu oinarri: entzunaldi aktiboa, desberdintasunen errespetua eta indarkeriei aurre egiteko estrategien bilaketa partekatua. Sare hori, ordea, ez da unean uneko edo egoeraren araberrako aliantza, trukerrako, laguntzarako eta salaketa bateraturako sare iraunkorra baizik. Gainera, muga nazionaletatik haratago doa, eta feminismo anitz bezain globalerrako kide-tza sendotzen du.

Indarkeriak modu kolektiboan aipatzeko jarduerari esker, interpretaziorako esparru erkidea eratu zen. Bertan, gainera, banakako esperientziek dentsitate politikoa daukate, eta beste emakume batzuen borroken bidez egituratzen dira. Diagnostikoaren dimentsio kolektibo horrek kontzientziazioa sustatzen du, baina, horrez gain, salaketa publikorako diskurtso partekatuen sorrera errazten du, instituzioetara, komunikabideetara eta erkidegoetara jozteko gaitasuna dutela kontuan hartuta.

Aldi berean, komunikazio feministarako berezko guneak sortzeko bultzada sendotu zen, bertan emakumeek euren historiak euren hitzen bitartez, euren ahotsen bidez eta eurek nahi dutenean azaldu ditzaten. Babeserrako sistema instituzionalen inguruko mesfidantza nagusi denez eta komunikabideetan indarkeriak ikusezina direnez, emakume asko modu autonomoan hasi ziren narratioak ekoizten (irriti komunitarioen, sare sozialen eta performan-

Partekatutako kontakizunak eta esperientziak

ce-ekintzen bidez), erresistentziari eusteko, agerian jartzeko eta zilegitasuna eratzeko tresna moduan.

Horrez gain, zikloari esker, argi eta garbi utzi zuten zeinen garrantzizkoa den sare horiei topaketako unetik haratago eustea. Emakume parte-hartzaileek aitortu egin zuten lotune horiek bere horretan irautea (trukeen, aldian aldiko topaketen, aliantza estrategikoen edo lan bateratuaren bidez) ezinbestekoa dela sistemak inposatutako higadurari eta zatiketari aurre egin ahal izateko. Alde horretatik, sare partekatua arnasa luzeko tresna politikoa da, eta laguntasunerako nahiz ekintza koordinaturako jarri daiteke abian, eskubideetan atzera egiten denean edo indarkeriak sortzen direnean.

Azken batean, zikloaren esparruan ehundu zena topagunea ez ezik, nazioz haraindiko erkidego politiko feministaren hasiera ere izan zen, eta, bertan, indarkerien egiturazko azterketa bateratzen da aliantzen eraketa afektiboarekin. Erkidego horrek, gainera, elkarren arteko aitortza zein ibilbideen aniztasuna ditu oinarri, eta eraldaketa kolektiboaren, justizia sozialaren zein duintasun partekatuaren aldeko apustua egiten du.



ERRESISTENTZIARAKO eta ERALDAKETARAKO ESTRATEGIAK



Erresistentziarako eta eraldaketarako estrategiak

6.1

Laguntza-sareak, erresistentzia eta ahizpatasuna

Euren ibilbideetan pairatzen dituzten bakardadearen, oldarkortasun instituzionalaren eta egiturazko indarkeriaren aurrean, topaketen zikloko emakume parte-hartzaileek irmo-irmo adierazi zuten zeinen garrantzitsuak diren emakumeen arteko sareak, eusteko, zaintzeko eta eremu politikoak modu kolektiboan eraldatzeko estrategia ahaltsuenetakoa dira-eta. Laguntasun emozionalerako tresnak ez ezik, sare formal edo informal horiek zilegitasunerako, ikaskuntzarako eta, antzekotasunetatik, boterearen eraketarako erabilitako eremuak ere badira. Askotan, zenbait esparru feministaren esanetan, biziaren jasangarritasunerako egiturak edo lotunearen ekonomiak dira. Horregatik, elkarren arteko zainketa eta afektua borrokaren oso dimentsio politikoa dira.

Emakume hautetsi batek irmo-irmo adierazi zuenez, *“emakumeen sarea eduki ez banu, etxera joango nintzen. Bene-benetan!”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Hartara, sareak eremu afektibo eta politikoak direnez, konfiantzatik hitz egiteko, indarkeria naturalizatuak aitortzeko, estrategiak partekatzeko eta bizipenei zentzu kolektiboa aurkitzeko aukera ematen dute, bestela, egoera horiek isolatuta bizi dituztela kontuan hartuta. Beste emakume batek haxe esan zuen, hautetsi moduan izandako hastapenak gogoratzean: *“ez nekien nire errua zen ala ez. Zorutzen nengoela uste nuen. Orduan, beste emakume batzuekin hitz egin nuen, eta guztioi gertatzen zitzaigula ikusi nuen. Hortxe aldatu zen dena”* (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Horrelako eremuetan, elkarren arteko aitortza eta bizitakoari hitzak jartzeko aukera oso-oso egintza politikoak dira. Indarkeria banakakotzeko logika hausten dute, eta, horri esker, arlo pertsonala egiturazkoa ere badela ulertzen da. Emakume parte-hartzaile baten esanetan, *“emakume kide batek begiratu eta zera esan zidan: ‘hau indarkeria politikoa da’. Hori baino ez. Judizioa*

itzuli zidan. Eutsi egin zidan” (1. saioa: Emakume hautetsiak). Begirada horrek min eman, babestu, konpondu eta zilegitasuna eman duenari jartzen dio ize-na.

Sare horiek alderdien edo instituzioen esparrutik haratago doaz. Batzuetan, zenbait udalerritako, mugimendutako edo herrialdetako emakumeen artean hedatzen direnez, lurraldeen arteko eta zeharkako aliantzak sortzen dira. “Beste udalerri batzuetako emakume kideok elkarri idazten diogu, mozio garrantzitsuak ditugunean. Elkarri laguntzen diogu, eta baliabideak trukatzen ditugu. Badakigu hortxe gaudela” (1. saioa: Emakume hautetsiak). Beste batzuetan, laguntasuna egunerokoagoa da, baina erabakigarria ere bai: “batzuetan horri buruz norbaitekin hitz egin ahal izatea baino ez erresistentziarako modua da” (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Elkarteen arlotik, sarea eratzeke esperientzia zehatzak partekatu zituzten; esate baterako, Bizkaiko Berdintasunerako Kontseiluko erakundeetako batek banakako laguntasun juridikoa bateratzen du entzunaldi aktiborako talde-eremuekin. Prozesu horien ondorioz, emakumeek autokudeatutako taldea ere sortu da, eta, bertan, elkarri laguntzen diote. “*Zuretzat lagungarria izan dena lagungarria izan daiteke niretzat*”, adierazi zuen emakume desgaitu batek (2. saioa: Kontseilua), esperientziaren bidez jokabideak partekatzea zeinen baliotsua den azpimarratu nahian.

Sare horiek abian ere jartzen dira indarkeria-mota latzenen aurrean; esate baterako, jazarpen digitala. Emakume hautetsi bat eraso bateko biktima izan zen kontua hackeatu ziotenean, eta azaldu egin zuen emakumeen taldea izan zela laguntzarako eta salaketa kolektiborako katea koordinatzea lortu zuena. “*Emakumeak ezin izan zuen hori guztia geldiarazi, harik eta emakume guztiok antolatu eta salaketa-katea egin genuen arte, Facebookek jaitsi zezan. Lan kolektiboa izan zen*” (2. saioa: Kontseilua).

Sare horiei sakontasuna ematen dieten beste elementuetako bat haien belaunaldien arteko dimentsioa da. Emakume nagusiek itxaropentsu agertu ziren, neska gazteek konpromisoa zutela ikustean, eta neska gazteek aitortu egin zuten zeinen garrantzitsua zen aurretiazko borrokekin bat egitea eta hutsetik ez hastea. Belaunaldien arteko elkarrizketa horri esker, oroimen kolektiboa ehuntzen da, eta feminismoa hainbat ahotsen, ibilbideren eta erre-

Erresistentziarako eta eraldaketarako estrategiak

sistentziaren bidez eratzten dela aitortzen da.

Landa-inguruneetako edo jazarpen instituzionala ezaugarri bereizgarri duten eremuetak emakumeek autoantolaketa ere aipatu zuten indarkeria politikoari aurre egiteko erresistentzia moduan. Landa-ingurune emakume alkate ohi baten esanetan, *“antolatu egiten gara, ahaldundu egiten gara eta salatu ere egiten gaituzte... Hala ere, ezin izan gaituzte geldiarazi”* (3. saioa: Emakume liderrak). Beraz, hemen, antolakuntza feminista agertzen da isilarazteko saialdiari emandako erantzun zehatz moduan, baita higadurari aurre egiteko zainketa politikorako tresna moduan ere.

Kriminalizazioa edo higadura emozionala nagusi den testuinguruetan, laguntza afektiboa funtsezkoa da erabat. *“Ni neu gero eta indartsuagoa nintzen, esku laguna neukalako eta zera esaten zidalako: ‘ez zaude bakarrik, Manuela zure etxea da, Manuela zure ama da’”*, partekatu zuen Peruko emakume lider politiko batek (3. saioa: Emakume liderrak). Konfiantzazko eta afektuzko sare horiek borrokari eusten diote, baina, horrez gain, zainketaren etikaren bidez botere-guneetan lekurtzeko aukera ere ematen dute.

Gazteen eta unibertsitarioen arloan, estrategia politikoak aipatu zituzten, logika helduzentrikoa edo akademizista hausteko eta prestakuntzarako, zainketarako eta feminismoari buruzko mitoen desagerpenerako eremu seguru, horizontal eta dibertsoen aldeko apustua egiteko. Bultzada hori nazioarteko aliantzekin ere badago lotuta, eskubideetan gertatutako atzerakuntzen aurrean babesteko, ikasteko eta egituratzeko sistemak direla kontuan hartuta.

Peruko aktibistek sare horiei esker lortutako eragin politiko feministaren adibideak partekatu zituzten; esate baterako, berariazko egitura instituzionalak sortzea, emakumeen azpigerentziak, adibidez, eta udal-ordenantzak onartzea, urteetan eta urteetan erakundeak, emakume lider komunitarioak eta tokian tokiko agintariak elkarren artean egituratu ostean.

Era berean, artea eta herri-kultura aldarrikatu ziren erresistentzia kolektibo moduan: batukadak, performanceak, oinazea salaketa bihurtzen duten ekin-tza sortzaileak eta erkidegoko bertako isolamendua. *“Borrokak badu soinu-rik”*, esan zuten. Soinu hori (alaia, haserretua eta itxaropentsua) emakume askori eusten diena da politika instituzionalak kale egiten dienean.

Oro har, emakumeen sareak oinazearen aurrean eusteko eremuak baino gehiago dira. Eraldaketarako egitura biziak dira, eta, bertan, lotunearen, entzunaldiaren nahiz elkarrekikotasunaren bidez egiten da politika. Bertan, ahizpatasuna eguneroko jarduketa da, erresistentzia partekatzen da eta itxaropena gorpuzten da. Zatitu eta isolatzen duen sistemaren aurrean, sareek erkidegoa ehuntzen dute. Edonola ere, sare horiek erronka handiei ere aurre egin behar diete; esate baterako, ezegonkortasuna, indarkeria edo premia politikoa ezaugarri bereizgarri dituzten testuinguruetan lotuneei eusteko, sareak zaindu behar da, erantzukizunak birbanatu behar dira eta zatiketari aurre egin behar zaio. Batzuetan, barruko tentsioak ere badaude; esate baterako, emakume batzuen gainkarga edo belaunaldi, kultura edo politika arloko dibertsitateak integratzeko zailtasunak. Izena jartzea eta modu kolektiboan kudeatzea feminismoa sendotzeko prozesuaren beraren parte da. Hala ere, harremanezko politika feminista gorpuztu eta erresistentearen zutabe sendoenetakoa da oraindik.

6.2 Prestakuntza, eragin politikoa eta komunikazioa

Bazterkeria, indarkeria sinbolikoa eta haien ekarpenen ikusezintasuna ezaugarri bereizgarri dituen ordena politikoaren aurrean, topaketen zikloan parte hartu zuten emakumeek prestakuntza, eragin politikoa eta komunikazio feminista aipatu zituzten erresistentziarako eta eraldaketarako funtsezko tresna moduan. Estrategia horiei esker, badute bizitako era guztietako indarkerietatik defendatzerik eta, horrez gain, sen ona lortzeko borrokatzerik, botere kolektiboa eratzerik eta, ikuspegi feministaren bidez, joko instituzionalaren arauak berregituratzerik.

Emakume hautetsientzat, etengabeko prestakuntza nahitaezko premia da. Haietako batek esan zuenez, *“politikan egoteko, ondo prestatuta egon behar gara, geure lana egiteko eta, horrez gain, geure burua defendatzeko”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Ikaskuntza hori teknikoa baino gehiago da. Izan ere, ulertu egin behar da matxismoak nolako eragina daukan botere-egituretan, nola egituratzen diren indarkeria sinbolikoak eta nola eratu behar diren haiei aurre egiteko tresnak. *“Ez da hirigintzari edo aurrekontuei buruz baka-*

Erresistentziarako eta eraldaketarako estrategiak

rrik jakin behar, horixe ere beharrezkoa den arren. Eremu horietan egoteko moduko tresna feministak edukitzea da helburua", adierazi zuen beste parte-hartzaile batek.

Emakume askoren esanetan, euren prestakuntza autokudeatu behar izan dute, eta, horretarako, giza talde feministek antolatutako mintegietan, topaketetan edo guneetan parte hartu dute. Alderdiek edo administrazioek berriazko prestakuntzarik ematen ez dutenez, emakume askok ikasteko beste modu batzuk bilatu behar izan dituzte, jakintzak bereganatzeko eta, horrez gain, euren esperientzia politizatzeko eta bizitakoari zentzu kolektiboa aurkitzeko. *"Uste nuen ni neu nintzela, balio ez nuela. Orduan, tailer feminista batera joan nintzen, eta arazo pertsonala ez zela ulertu nuen, egiturazkoa baizik"* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Jakintza feminista hori ez da bakar-bakarrik eratzen, honako hauexen bidez sortzen delako: elkarri entzutea, oroimenaren partekatzea eta egiturazko ereduen erakusgarri diren banakako bizipenak lotzea.

Komunikazioaren dimentsioa ere aipatu zuten lehia nagusirako arlo moduan. Emakume parte-hartzaileen esanetan, arreta handi-handiz zaintzen dituzte jendaurrean egiten dituzten agerraldiak, jakin badakitelako etengabeko zaintzapean daudela. *"Askok zaintzen dugu nola hitz egiten dugun, nola idazten dugun. Izan ere, jakin badakigu txarto esandako edozein hitz geure kontrako izango dela"* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Hiperagerpen horrek, ordea, ez ditu geldiarazi, komunikaziorako estrategia eraldatzailea jarri dutelako abian eta, bertan, hitza bera tresna politikoa delako. *"Komunikazioa eragiteko modua ere bada, gertatzen zaiguna pertsonala barik politikoa dela esateko modua, alegia"* (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Horren haritik, Bizkaiko Berdintasunerako Kontseiluko emakumeek azaldu egin zuten nola egituratzen dituzten prestakuntza, komunikazioa eta eragina, ikuspegi kolektibo eta kokatuaren bitartez. *"Ikasi egin behar izan genuen nola eskatu zerbait gai-zerrendan sartzeko eta termino teknikoaren bidez nola hitz egin. Prestatu egin ginen, kontseiluetan isilarazi ez gintzaten"* (2. saioa: Kontseilua). FECOREn, elkarte komunitarioetan edo antzeko eremuetan, tailerrak, hitzaldiak, diagnostikoak eta bideoak garatzen dituzte, esperientzia bera ekintza politikoarekin lotzeko. *"Prestakuntza lantzen dugu, baina eragina ere bai. Agiriak aurkezten ditugu, erantzunak eskatzen ditugu"* (2. saioa: Kontseilua).

Peruko erakunde feministek azaldutakoak bezalako jazarpen instituzionala eta atzerakuntza demokratikoak ezaugarri bereizgarri dituzten testuinguruetan, prestakuntza politiko eta juridikoak are estrategikoagoa den balioa dauka. *“Nik neuk ez nekien bizi nuena jazarpen politikoa zenik, Manuela Ramosen prestakuntza batera joan nintzen arte”* (3. saioa: Eragile sozialak). Hezkuntza feminista funtsezkoa izan da, indarkeriak antzemateko, legezko erantzunak egituratzeko eta, isilarazteko saialdien aurrean, babeserako mekanismoak abian jartzeko. Herritarren behatokiaren sorrera eta indarkeria instituzionalerako lege-babesaren defentsa kontuan hartuta, ekimen horiek egiaztatu egiten dute nolako boterea duen gizarte zibil antolatuak eutsitako eraginak.

Aldi berean, komunikazio politiko feminista erresistentziarako lubakia da diskurtsoak hutsik daudenean eta kriminalizatzen dituztenean. *“Ospe ona kentzeko kanpainei aurre egin behar diegu, baina gure borrokak ezabatzen dituen isiltasunari ere bai. Horregatik, geure baliabideak behar ditugu, geure narrazioak, alegia”* (3. saioa: Eragile sozialak). Irrati komunitarioek, sare sozialek edo ekintza kulturelek edukiak sortzen dituztenez, ezkutatutako errealtateak jartzen dira agerian, salaketari eusten diote eta kontakizun ofizialek kanpo utzitako emakumeen ahotsak areagotzen dira.

Azkenik, Munduko Emakumeekin egindako bilerako parte-hartzaileek azpimarratu zutenez, estrategia horiek ez dira defentsara mugatzen, alternatiba politiko zehatzak ere eratzen dituztelako. Hona hemen jakintza kokatuak eta ekintza feministak egiturak behetik eraldatzeko duten gaitasunaren adierazgarri diren zenbait adibide: indarkeria instituzionalaren herri-behatokia sortzea, legeak konkistatzea, Peruko jazarpen politikoari buruzkoa, esaterako, edo, partaidetzazko prozesuen bidez, tokiko araudiak sortzea. Nahiz eta askotan ekimen horiek bazterretatik sortzen diren, zenbait lurraldetan egitura publikoak iragazi dituzte; esate baterako, tokiko instituzioekin lan egiteko esperientzietan, genero-ikuspegidun diagnostikoak egiten edo, begirada feminista kokatuaren bidez, berariazko prestakuntzak batera sortzen hasi direla kontuan hartuta.

Oro har, bildutako kontakizunek agerian uzten dute prestakuntza feminista, komunikazio eraldatzailea eta eragin politikoa hiru zutabe banaezinak direla bidezkoagoa, inklusiboagoa eta emantzipatzaileagoa den politika eratze-

ko orduan. Ez dira tresna osagarriak, erresistentziarako nahiz aldaketarako erabateko jarduketak baizik. Haiei esker, hain zuzen ere, emakumeek hitza hartzen dute, esparru publikoa okupatzen dute zilegitasunez eta boterea lortzeko lehiatzen dira zainketaren, justiziaren zein kolektibotasunaren etikaren bitartez. Politika tradizionala bazterkeriaren bidez eratzen den testuinguruetan, estrategia feminista horiek eremuak lortzeko lehiatzen dira, baina arlo politikoaren zentzuak lortzeko ere bai.

Partaidetza komunitarioa, belaunaldien artekoa eta nazioz haraindikoa

6.3

Askotan, politika instituzionalak benetako bizitzatik aldendutako banakako logika teknokratikoak ditu ezaugarri bereizgarri, eta, horren aurrean, zikloko emakume parte-hartzaileek partaidetza-sistema kokatu, komunitario eta harremanezkoen alde egin zuten, honako haxe dutelako elikagai: lurralde-erroketa, belaunaldien arteko elkarrizketa eta emakumeen arteko nazioz haraindiko lotuneak. Partaidetza horren helburua ez da hurbil egon nahi izatea bakarrik, jakinaren gainean ezarritako estrategia politikoa ere badelako, eusteko, zilegitasuna lortzeko eta egiturak behetik eraldatzeko.

Lehenengo saioetatik, emakume hautetsiek behin eta berriro esan zuten instituzioetara ez zirela banan-bana eta halabeharrez iritsi, auzokoen, feministen, sindikatuen edo erkidegoaren mugimenduetan aldeaz aurretik garatutako ibilbide kolektiboen ondorioz baizik. Emakumeetako batek argi eta garbi adierazi zuenez, *“instituzioetara ez gara bakar-bakarrik iristen, geure ibilbide kolektiboak ditugulako bidelagun. Sustrai horiekin daukagun lotunea ez galtzea da garrantzitsuena”* (1. saioa: Emakume hautetsiak). Emakume askorentzat, jatorrizko erkidegoekin dituzten lotune horiei eustea isolamendu instituzionalari aurre egiteko, zilegitasunari eusteko eta, arlo bateratutik, politika eratzen jarraitzeko modu zehatza da. Emakume batzuek konfiantzako zirkuluen bidez egiten dutenez, kontsultatu, partekatu eta egindakoaren berri ematen dute. *“Noizean behin batzartzen gara, elkarrekin zer gertatzen den eta zer egin pentsatzeko”* (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Sustrai komunitario hori Bizkaiko Berdintasunerako Kontseiluko tokian toki-

ko erakundeen kontakizunetan ere aipatu zen. Zenbait ekimenetan, Urtue-llako Erkidego Beltzaren edo ONEKAREN ekimenean, esaterako, ezin argiago utzi zen partaidetza politikoa eremu seguru, irisgarri eta afektiboaren sorrerarekin dagoela lotuta eta emakume nagusiek, arrazializatuak edo baztertutako badutela bertan elkartzerik, adierazzerik eta antolatzerik. Emakume parte-hartzaile baten esanetan, “jarduerak egiten ditugu, etxetik irteten daitezela eta harremanetan egon daitezela” (2. saioa: Kontseilua). Aldi berean, eremu horiek partaidetza eraldatzailerako babeslekua, eskola eta haztegia ere badira.

Aldi berean, askotan aipatu zen belaunaldien arteko dimentsioa funtsezko estrategia dela mugimendu feministei eusteko orduan. Emakume nagusiek zirrara handiz adierazi zuten neska gazteei begirune handia dietela. “Pozaren pozez eta ilusioz noa, emakume gazteak ikusi ditudalako” (2. saioa: Kontseilua). Emakume gazteek, ordea, eskerrak eman zituzten bidea urratu zutenen oroimen, esperientzia eta legatuagatik. “Nik neuk ikasi egin dut, beste emakume batzuek irakatsi egin didatelako. Niretzat oinarritzakoa da orain hurbiltzen ari direnei laguntzea” (1. saioa: Emakume hautetsiak). Jakitate, afektua eta estrategia horien igorpena honako hauexei aurre egiteko tresna politikoa da: higadura, instituzioen oroimenik eza eta desberdintasuneko txandaketa. Horri esker, haria ebaki gabe eusten diote borrokari, eta sustraia zein hegoak dituen politika feminista eratzen dute.

Halaber, zikloaren formatuari berari esker, partaidetzaren esperientzia nazioz haraindikoa izan zen, azterketak aberastu zituen eta zenbait testuingurutako borroken, indarkerien eta erresistentzien arteko lotuneak ezarri ziren. Peruko emakume liderren ahotsek inspirazio-iturritzat, ikasbidetzat eta ispilutzat hartutako indarkeria kolektiboa ekarri zuten. “Asko-asko ikasi behar dugu emakumeek Amerika Latinoan, Afrikan... garatutako borroketatik. Emakume horiek alaitasunaren eta kolektibotasunaren bidez aurre egiten irakasten digute” (1. saioa: Emakume hautetsiak), azaldu zuen parte-hartzaile batek. Hartara, aukera politikoa ireki zuen feminismoaren beste geografia batzue-tarantz.

Peruko erakunde feministek eta sozialek behin eta berriro esan zuten premiazkoa zela oroimenerako eta adierazpen komunitariorako eremuak sortzea; esate baterako, eraildako emakumeen izenak daramatzaten tapaki brodatuak edo landa-inguruneetako ekintza pedagogikoak, bertako gazteen

Erresistentziarako eta eraldaketarako estrategiak

partaidetza oraindik ere mugatua dela kontuan hartuta. Proposamen horiek, ordea, ez dira apaingarriak, oso-oso eginkizun eraldatzailea dutelako oroi-mena abian jartzeko, isiluneak hausteko eta aliantza berriak egituratzeko orduan. “Mutilek ehundu egiten zuten, eta zera ere bazioten: gaur, pankarta egin nahi dut” (I. bilera: Munduko Emakumeak).

Azkenik, eskubideen aurkako diskurtsoek gero eta indar handiagoa daukaten testuinguruetan, azpimarratu egin zen zeinen garrantzitsua den lurraldeen eta zenbait eratako mugimenduen arteko sareak ehuntzea, isolamenduari aurre egin ahal izateko. Sare horiek oihartzun handiagoa ematen diete salaketek, eta, horrez gain, itxaropen feministari eusteko aukera ere ematen dute, baita bizian, justizian eta zainketan oinarritutako politikaren aldeko apustua egiteko aukera ere. Nazioarteko aliantza horiek ez dira norabide bakarreko elkartasun-egintzak, atzeraelikatzen diren eta elkarri indarra ematen dieten borroken gurutzaketak baizik. Eskubideen aurkako diskurtsoak hainbat eta hainbat geografiatan aurrera egiten ari direnean, sare horiek ezkutu sinboliko eta politikoak ere badira, eta behar besteko aukera ematen dute beldurrari aurre egiteko, desberdintasuna zilegi egiteko eta itxaropen feminista bateratuari eusteko.

Oro har, entzundako ahotsek agerian uzten dute politika feminista ez dela bolizko dorre instituzionaletik egiten, beste emakume batzuekin partekatutako zorutik baizik: auzotik, elkarteen saretik, landa-inguruneko herrietatik, amatasunetatik nahiz zaurietatik eta historia kolektibotik. Hain zuzen ere, belaunaldien arteko eta nazioz haraindiko aingura komunitario horretan bertan dago feminismo politiko garaikidearen ahalmen eraldatzaile handienetakoa.

Zainketa kolektiboak eta norberaren zainketak

6.4

Emakume parte-hartzaileen kontakizunetan, zainketa kolektiboa eta norberaren zainketa ez dira ez jarduketa osagarriak ez banakako egintzak, oldarkortasuna, higadura emozionala eta egiturazko indarkeria ezaugarri bereizgarri dituzten testuinguruetan partaidetza feministari eusteko ezinbestekoak diren estrategia politikoak baizik. Ongizateari buruzko banakako diskurtsoak

albo batera utzita, zainketak sistema patriarkal zein neoliberalaren ondorioz sortutako nekeari aurre egiteko jarrera politiko kolektiboa direla azaldu zuten.

Indar handieneko ideien artean, politika ikuspegi feministatik egitean sortutako gainkarga emozionala aipatu zuten. Inguru oldarkorretan daudenean, eraso sinbolikoak pairatzen dituztenean eta beste emakume batzuen eskaerei eutsi behar dietenean, higadura sakon-sakona sortzen da. Emakume zi-negotzi batek honelaxe laburbildu zuen: “politika honek nekatu egiten zaitu. Bakar-bakarrik zaude, ingurune oldarkorrean zaude eta, horrez gain, beste emakume batzuen egonezinak ere badaramatzazu soinean. Sarerik ez baduzu, ez duzu eusterik” (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Horren aurrean, emakumeen arteko konfiantza-sareak funtsezkoak dira arnasteko, eusteko eta nor bere onera itzultzeko. Zenbait emakume hautetsik azaldu zutenez, oso garrantzitsua da arlo instituzionaletik kanpo dauden “kidetasun-taldeak” edukitzea, ezinegonak partekatzeko, negar egiteko, barre egiteko edo, besterik gabe, epaituak izan gabe elkarrekin egoteko. “Egun batzuetan, lur jota irteten naiz, baina gero talde batekin elkartzen naiz, eta, bertan, den-dena aldatzen da. Barre egiten dugu, negar egiten dugu, elkar besarkatzen dugu... Horrek guztiak bizia ematen dizu” (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Haien esanetan, umore partekatua zainketarako eta erresistentziarako tresna ahaltsua da. Seriotasun instituzionalaren eta etengabeko presioaren erdi-erdian, barreak balio eraldatzailea dauka. “Barrerik ez badago, ez dago iraultzarik. Gainera, ulertzen dizuten eta hortxe egotea zer den badakiten beste emakume batzuekin barre egitea sendagaia da benetan” (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Halaber, azaldu egin zuten zeinen premiazkoa den mugak eurak aitortzea eta autoeskaeraren logika desegitea. Gelditzen, atsedean hartzen edo eskuordetzen ikastea ez zuten ahuleziatzat hartu, bizirauteko estrategiatzat baizik. Emakume batek ezin argiago esan zuenez, “ezetz esaten, atsedean hartzen eta neure burua zaintzen ikasi behar izan dute. Bestela, hautsi egiten naiz, eta ezin dut jarraitu. Hori, ordea, ez da neurekoikeria, estrategia baizik” (1. saioa: Emakume hautetsiak).

Erresistentziarako eta eraldaketarako estrategiak

Sinbolikoagoa eta espiritualagoa zen begiradatik, naturarekiko harremana eta Patxamama ere aldarrikatu zituzten orekaren, gidaren eta zainketaren iturri moduan. Emakume batek halaxe adierazi zuen kontseiluarekin egin-dako saio batean: “beti-beti, Patxamamari, Lurrari eskerrak emateko ohitura daukagu. Gainera, hori egiten ez dugunean, gauzak ez doaz ondo” (2. saioa: Kontseilua). Behinolako mundu-ikuskera horrek norberaren ongizatea eta ongizate kolektiboa lotzen dituen, ingurunearekiko elkarrekikotasuna dauka.

Emakumeen esanetan, entzunaldi aktiboa, pareen arteko babesa eta epairik gabeko laguntasuna funtsezkoak dira sare komunitario feministan. “Batasuna da garrantzitsua, baita gauzak batzea ere. Epaitu gabe entzuten dugu” (2. saioa: Kontseilua), baieztatu zuen parte-hartzaile batek, elkarren arteko zainketa erresistentzia-modua ere badela azpimarratzeko.

Mugimendu sozialek nabarmendu egin zuten zeinen beharrezkoa den zainketak edozein estrategia kolektiboren egiturazko parte moduan integratzea. “Hori guztia egiteko, garrantzitsua da zainketak kontuan hartzea eta zainketak ziurtatzea, banatzea eta aitortzea” (3. saioa: Eragile sozialak), azaldu zuen emakume lider batek, ekintza feministaren bihotzean bertan daukan lekua aldarrikatu nahian.

Feminismoari zilegitasuna kentzen dioten eta zainketen defentsa barregarri uzten duten diskurtsoek aurrera egin dutenez, emakume askok sormenaren, duintasunaren eta erkidegoaren bidez erantzun dute. Osoko bilkura latz baten ostean emakume kideek emandako besarkada, babeserako nazioarteko sareak edo jatorrizko hizkuntzak darabiltzaten eremu komunitarioak kontuan hartuta, eusten, konpontzen eta eraldatzen duten hari ikusezin bezain iraunkorra dira zainketak.

Azken batean, aldarrikatu egin zuten zainketa bera (banakakoa eta kolektiboa) jardun etiko, politiko eta erradikala dela eta behar besteko gaitasuna duela autosufizientziaren agintaldi liberalari erronka botatzeko eta gorpuztutako, harremanezko eta oso-oso gizatiarra den feminismoa eratzeko. Honako haxe da, hain zuzen ere: biziari eusteko aukera, higadura instituzionalaren aurkako tresna politikoa eta boterea erabiltzeko beste modu baten aldeko apustu zehatza.

6.5 Eraginerako, salaketarako eta bultzatutako arau-aldaketetarako ekintzak

Zikloko saioetan bertan, emakume parte-hartzaileek praxi politiko feminista-ren bidez bultzatutako eraldaketa instituzional eta sozialerako era askotako ekintza zuzenak izan zituzten hizpide. Ekintza horien helburu bakarra, ordea, ez da pairatutako indarkeriei aurre egitea, egiturazko aldaketarako agendari erantzuten diotelako, honako haxe xede duela kontuan hartuta: sen onaren alde borrokatzea, boterearen logika patriarkalei erronka botatzea eta egiturak instituzioetatik bertatik nahiz bazterretatik ere aldatzea.

Emakume hautetsien kasuan, mozioak, arau-proposamenak edo aurrekontu-proposamenak aurkezteko orduan ikuspegi feminista kontuan hartzea agerraldi politikorako gehien nabarmendu ziren tresnetakoa izan zen. Sarritan, ekimen horiei bakar-bakarrik edo babes urriaz aurre egin behar dieten arren, balio sinboliko eta politiko eztabaidea ezina dute. “Neuk aurkeztu nuen bakar-bakarrik. Banekien irtengo ez zela, baina mahaigaineratu egin nuen. Izan ere, horren berri eman beharra dago, horixe bera ere badelako politika egitea” (1. saioa: Emakume hautetsiak). Entzun nahi ez dena aipatzeko, eztabaida deserosoak suspertzeko eta ukatutako errealitateak agerian jartzeko gaitasuna erresistentzia-modua da berez.

Halaber, botere-guneetan bertan indarkeriak salatzeke orduan bide instituzionalak erabiltzea estrategia ausarta dela adierazi zuten, berehalako emaitza gutxi baditu ere. “Barruko salaketa egin nuen. Ez zuen ezertarako balio izan, baina hautsa astindu zuen. Horren ostean, beste emakume batzuek hitz egin zuten. Banekien zer zetorkidan gainera, baina hori egiten ez baduzu, zigorgabetasuna erabatekoa da” (1. saioa: Emakume hautetsiak). Beti-beti salaketa horien ondorioz zehapenik ezartzen ez den arren, kultura instituzional patriarkalean sortzen dira arrakalak, eta kontzientziazteko prozesu kolektiboak sustatzen dira.

Bestetik, funtsezkoa ere izan da pairatutako indarkeriak jendaurrean agerian jartzea, babesteko, salatzeke eta kanpoko zilegitasuna eratzeke sistema moduan. Sare sozialen, komunikabideen edo eremu komunitarioen bitartez, emakume askok isiltasun-itunak haustea lortu dute. “Horren berri ematean, neure burua babestu nuen. Izan ere, kanpoan horren berri bazuten, ezin zu-

Erresistentziarako eta eraldaketarako estrategiak

ten entzungorrena egin” (1. saioa: Emakume hautetsiak). Alde horretatik, narrazioa bera taktika politiko bihurtzen da.

Era berean, dinamizazio instituzional feministarako ekintzak ere partekatu zituzten; esate baterako, berdintasunerako batzordeak, kontseiluak edo emakume zinegotzien arteko sareak. “Batzordearen bidez, aldaketak bultzatu genituen protokoloetan, pleguetan, aurrekontuetan... Astiro garatu zen, baina aztarna utzi genuen apurka-apurka” (1. saioa: Emakume hautetsiak). Horrelako egiturei esker, aldaketa-prozesuei eusten zaie, eta jarraipena ematen zaie, nahiz eta karguetan txandakatu edo arlo politikoan atzera egin.

Bizkaiko Berdintasunerako Kontseilukoek herritarren fiskalizaziorako eta eragin egituraturako esperientziak izan zituzten hizpide. “Aldundiak kanporatuta zituen zerbitzuen jardunbideari buruzko azterketa egin genuen. Ikusi genuen guztiari buruzko agiria aurkeztu genuen” (2. saioa: Kontseilua). Eran-tzun instituzionala partziala izan bazen ere, behetik modu kritikoan behatzea boteretsua dela erakutsi zuen ekintzak.

Peruko emakume liderrek arauen eta antolakuntzaren arloko aurrerapauso adierazgarriak partekatu zituzten. Besteak beste, tokiko gobernuetan jazarpen politikoagatik zehapen ekonomikoak ezartzeko proposamena nabarmentzen da. “Neure probintzian, zehapen ekonomikoak proposatzen ari gara...; esate baterako, kontseiluaren bilera batean hitza kentzeagatik” (2. saioa: Kontseilua). Indarkeriaren azterketa kokatuaren ondorioz sortutako proposamen horiek zigor sinbolikoaren esparru tradizionalei botatzen diete erronka, eta egoeraren berri emateko tresna zehatzak ezartzen dituzte.

Era berean, honako hauexek ere nabarmendu zituzten: kaleko jazarpenaren aurkako ordenantzak, erabakitze gaitasuna duten gazte-kontseiluen sorrera eta eskaera komunitarioak zenbait tresnaren bidez egituratzeko prozesua; esate baterako, Emakumeen Agenda edo Emakume Ketxuen, Aimaren eta Kiruen Ituna. “Emakume bakoitzak osasunean, hezkuntzan, indarkerian... zeukan arazoa azaltzen zuen, eta argi-argi atera genuen zein ziren gogorrenak. Eskualdeko gobernuan aurkeztu genituen” (2. saioa: Kontseilua). Proposamen horiek agerian uzten dute ekintza feministak agenda publikoak eraldatzeko gai diren proiektu politiko kolektiboak sortu ahal eta behar dituela.

Isiltasun instituzionala edo gelditasuna ezaugarri bereizgarri duten tes-

tinguruetan, herritarrek indarkeria digitalei erantzuteko zehaztutako estrategiak ere ezarri ziren; esate baterako, emakume zinegotzi baten profila hackeatzea. “Sare sozialetan koordinatutako ekintza izan zen, argitalpenak ezabatzea lortu ahal izateko” (2. saioa: Kontseilua). Esperientzia horrek ahizpatasun digitalari ematen dio balioa, online jazarpenaren aurkako defentsarako eta konponketarako tresna da-eta.

Bestetik, administrazio publikoan generoaren ikuspegia zeharkakotzeko ekintzak aipatu zituzten; esate baterako, protokoloen idazketan parte hartzea, argudio instituzionalak egitea, adierazleak garatzea eta ikuspegi feminista kontuan hartzen duten datuak sistematizatzea. Askotan ikusezinak diren zeregin horiek funtsezkoak dira berdintasunerako politika publikoei egitura eta zilegitasuna emateko orduan.

Azkenik, azpimarratu egin zen eragin feminista ez dela eremu instituzionalera mugatzen, honako hauexetan ere agertzen delako: herri-salaketarako ekintzak, aliantza komunitarioak, herritarren behatokiak sorrera eta sormena zein kultura eraldaketarako tresna moduan erabiltzeko prozesua. Salaketa formala, plazako batukada, agiri teknikoa eta horma-irudi kolektiboa, hau da, keinu oro politika feministaren barruan dago kokatuta, zentzuen alde borrokatzeko, hierarkiei aurre egiteko eta jokoaren arauak eraldatzeko.

Horrelako ekintza asko oinarritik bertatik bultzatu badira ere, oraindik ere ez dago aitortza instituzionalik, eta, horren ondorioz, bere egiturazko eragina mugatzen da. Emakume parte-hartzaileen esanetan, instituzioek proposamen feministak entzun eta jaso behar dituzte, baina, horrez gain, eraginkortasunez integratu behar dituzte, eraldaketarako agenda horietarako baliabideak, jarraipena eta zilegitasuna bermatzeko.

Azken batean, zikloan bertan eraginerako aipatutako ekintzek ageri-agerian uzten dute aldaketa politikoa egunez egunekotan, bazterretan, proposamenetan eta elkarren arteko laguntasunean ere ehuntzen dela. Feminismo instituzional, komunitario eta herritarra indar eraldatzaile anitz eta egituratua da, eta era askotako fronteetatik aurre egiten dio ordena patriarkalari. Hartara, arrakalak egiten ditu botearen hormetan, eta emakume guztiontzat bidezkoagoa, inklusiboagoa zein bizigarriagoa den demokraziarantzko bidea urratzen du.



IKASKUNTZA KOLEKTIBOAK
eta JAKINTZA FEMINISTAN
EGINDAKO EKARPENAK



Ikaskuntza kolektiboak eta jakintza feministan egindako ekarpenak

Bizkaiko eta Peruko emakume lider feministen arteko trukerako prozesuaren ondorioz, arlo politikoko indarkeria matxistei buruzko diagnostiko partekatua sortu dira, baina ikaskuntza kolektiboen, ekarpen metodologikoen eta esanahi berria emateko prozesuen multzoa ere bai, elkargunetzako jakintza feminista kokatua sustatzen dutela kontuan hartuta. Kapitulu honetan, esperientzia zeharkatu eta eusten dioten ikaskuntzak azaltzen dira; esate baterako, lidergo erresilientearen funtsezko elementuak, prozesuan bertan bizitako tentsioak, oroimenaren balio politikoa eta modu kolektiboan eratutako tresna metodologikoak.

Lidergo erresilientearen funtsezko elementuak

7.1

Bizkaiko eta Peruko emakume liderren arteko trukerako prozesuan bertan, antzeko zenbait elementu antzeman ziren, eta lidergo feminista erresilientearen erakusgarri dira, hau da, lidergo horiek eusteko eta birsortzeko behar besteko gaitasuna dute oso testuinguru zailetan, egiturazko indarkerian eta ezegonkortasun instituzionalean. Elementu horiek, ordea, ez datoz bat banakako lidergoaren eredu tradizionalekin, lotuneetan, zainketetan eta jakitate partekatuetan oinarritutako jarduketa kokatuak, kolektiboak eta etikoak direlako.

Besteak beste, honako hauexek dira osagai nabarienenak:

- **Gorputzaren eta esperientziaren kontzientzia politikoa edukitzea:** emakume liderrek ez dute euren ibilbide politikoa euren bizipen pertsonal eta korporatetik bereizten. Indarkerien, amatasunaren eta migrazioaren oroimen gorpuztua kontakizun politikoaren

parte da. Euren biografiarekin duten lotune horrek haien zilegitasuna sendotzen du, eta errealtatean sakon-sakon sustraitutako diskurtsoak eratzeko aukera ematen die.

- **Lotune afektibo eta politikoei eusteko gaitasuna izatea:** isolamendu instituzional edo sozialaren aldean, emakume liderrek **babeserako, konfiantzarako eta laguntasunerako sare** formalak nahiz ez-formalak eratu eta zaintzen dituzte. Sare horiei esker, indarkeriari aurre egiten diote, estrategiak partekatzen dituzte eta ekintza kolektiboari eusten diote urteen joan-etorrian.
- **Hitza eraldaketarako tresna moduan erabiltzea:** lidergo erresilienteak **isildutakoa aipatzeko**, norberaren kontakizuna partekatzeko eta sen onaren alde borrokatzeko **gaitasuna** dauka oinarri. Diskurtsoa ez ezik, hitza bera sendatzeko, salatzeo, eragiteko eta erkidego politikoa sortzeko modua ere bada.
- **Kolektibotasunaren aldeko apustua egitea, banakako merezimenduaren aldean:** emakume parte-hartzaileek azpimarratu dutenez, lidergoa ez da banakako konkista, **prozesu kolektiboa** baizik, eta genealogiak, erreferenteak zein erkidegoak ditu elikagai. Aurretik egon ziren emakumeak aitortzea eta gero datozenei laguntzea boterearen jardun etikoaren parte da.
- **Zainketa ardatz politikotzat hartzea:** hiperemankortasuna eta deslotura emozionala sustatzen dituzten lidergo-eredu gizonduentzat ez bezala, emakume lider erresilienteentzat **zainketa (norberarena eta kolektiboa)** da haien ekintza politikoaren printzipio gidaria. Beraz, badakite gelditzen, sareari eusten, entzuten eta mugak aitortzen.

Ikaskuntza kolektiboak eta jakintza feministan egindako ekarpenak

- **Tokian tokikoa eta globaltasuna egituratzea:** gatazkek haien **egiturazko eta lurraldeko sustraiaren bidez** irakurtzeko gaitasuna eduki behar da, baina, aldi berean, agenda zabalagoekin lotu behar dira (giza eskubideen, justizia klimatikoaren edo nazioz haraindiko borroka feministen agendak, esaterako), zehaztasunean ainguratuta egon arren mundura zabalik dagoen lidergoa sendotzeko.
- **Erresistentzia sortzailea sustatzea, sistema patriarkalaren aurrean:** emakume liderrek **sormenaren, umorearen, espiritualtasunaren edo artearen** bidez garatzen dute euren boterea, haustura sinboliko eta kulturalerako moduak dira-eta. Horri esker, beldurra ekintza bihurtzen da; oinazea, salaketa; eta bakardadea, erkidego.

Laburbilduta, topaketen zikloan adierazi zen lidergo erresilientea ez dator bat logika hegemonikoekin, politikan egoteko beste modu bat proposatzen duelako eta bizitzan, harremanetan eta gizartearen eraldaketan oinarrituta dagoelako. Lidergo horrek bere konplexutasuna besarkatzen du indar eraldatzaile moduan, eta, hain zuzen ere, konplexutasun horretan bertan datza bere indarra.

Prozesuko tentsioak, kontraesanak eta indarrak

7.2

Peruko eta Bizkaiko emakume lider politiko, komunitario eta feministen arteko topaketen zikloa nazioz haraindiko politika eratzekeo jarduera erronkari eta ezin aberasgarriagoa izan da berez. Irudi homogenea edo idealizatua eskaini beharrean, prozesuak tentsioak/kontraesanak jarri ditu agerian, baita aliantza feminista anitz, kokatu eta eraldatzailea ezartzeko aukerari eusten dioten indar adierazgarriak ere.

Tentsioak eta kontraesanak

- **Erreferentziako esparru politiko eta linguistikoan dauden desberdintasunak:** emakume parte-hartzaileak oso desberdinak diren testuinguru instituzional, juridiko eta kulturaletatik abiatzen direnez, batzuetan **desorekak** sortzen dira **tresna analitikoetan** eta indarkeriei izena jartzeko edo estrategiak zehazteko eskuragarri dagoen hizkuntzan.
- **Asimetria material eta sinbolikoak:** horizontaltasuna xede nagusi zen arren, **honako hauexekin lotutako desorekak** sortu ziren: **baliabide eskuragarriak, jendaurreko agerikotasuna edo botere-guneetara iristeko aukera**. Asimetria horiek, ordea, ez dira beti aipatzen, baina elkarreraginak zeharkatzen dituzte, eta egonezina, zor-sentipenak edo partekatu gabeko itxaropena sortu ditzakete.
- **Feminismoen inguruko tentsioak:** ibilbideak era guztietakoak izan zirenez, **feminismoari buruzko interpretazioak desberdinak** izan ziren, baina zenbait gairen inguruan, batez ere; esate baterako, autonomia, estatuaren zeregina, espiritualtasuna edo gizonen lekua. Desberdintasun horiek prozesua indargabetu ez bazuten ere, errespetuz eta zabaltasunez hitz egin behar izan zuten ezinbestean, ados egon ez arren ere.
- **Mugimenduetan bertan dauden barruko kontraesanak:** zenbait emakume parte-hartzailek partekatu zuten, diskurtsoa berdintasunezkoa bada ere, **erakunde feministek edo sozialek ere hierarkiak, indarkeria sinbolikoak edo bazterkeriak berregiten dituzte**, emakume gazteei, arrazializatuiei, desgaituei, landa-ingurunekoei eta disidenteei dagokienez. Kontraesan horiek barruko berrikuspenerako beharrezko prozesuaren parte moduan aipatu zituzten.

Prozesuko indarrak

- **Eremu seguru eta dibertsoaren sorrera:** desberdintasunak desberdintasun, zikloak **konfiantzarako, zainketarako eta elkarren arteko aitortzarako eremua** eratzea lortu zuen, eta, bertan, emakumeek askatasunez adierazteko, euren zauriak partekatzeko eta estrategia kolektiboak egituratzeko aukera izan zuten.
- **Jakitate ugarien aitortza:** emakume parte-hartzaileek on-ontzat eman zuten **jakitate komunitario, herritar eta kokatuak jakintza politikoaren zilegizko adierazpideak direla** aitortzen duen ikuspegia, jakitate tekniko edo instituzionalen parean jartzen ditu-eta.
- **Zentzu partekatuaen sorrera:** saioetan bertan, **hizkuntza bateratua** sendotu zen apurka-apurka, eta bizitakoari izena jartzeko, egiturazko indarkeriak antzemateko eta proposamen kolektiboak eratzeo aukera eman zuen, desberdinak izan arren erresistentzia feministaren esperientziagatik lotuta dauden testu-
guruetatik.
- **Harreman-arloaren eta arlo afektiboaren aldeko apustua:** emankortasunaren edo berehalako emaitzen logikaren aurrean, prozesuak **lotunea, afektua eta zainketa** jarri zituen erdigunean, **ekintza politiko feministaren zutabe moduan**. Erabaki metodologiko hori indar etiko eta politiko moduan baloratu zuten, eta une zailenetan ere eutsi zion prozesuari.
- **Lurraldeen arteko egituraketa:** zikloak **nazioz haraindiko politika feminista** egituratzeko aukera eskaini zuen, baina ez da estraktibista eta sinbolikoa izan behar, aitortzan, truke horizontalean eta estrategien eraketa bateratuetan oinarrituta egon behar delako.

Egituraketa hori etorkizuneko prozesuetan sendotu beharreko ahalmena da, gainera.

Oro har, topaketen zikloak emakumeek politikan pairatzen dituzten indarkeriak jarri zituen agerian, baina, horrez gain, desberdintasunaren erdi-erdian jasagarriak diren aliantzak eratzeko beharrezkoak diren baldintzak ere bai. Tentsioak, ordea, ez ziren oztopoak izan, eraldaketa kolektiboarekin konpromisoa daukan prozesu zintzo bezain sakonaren parte eratzailea baizik.

7.3 Oroimen kolektiboaren balio politikoa

Prozesuko ikaskuntza sakonenetakoa oroimen kolektiboa tresna politiko feminista dela ulertzea izan da. Jardun oroigarri edo nostalgiko moduan sortu beharrean, zikloko emakume parte-hartzaileek erresistentziarako baliabide, belaunaldien arteko igorpen eta zentzu partekatuaren eraketa moduan ezarri zuten, zenbait lurraldetan bizitako indarkerien aurrean.

Topaketetan bertan sortutako kontakizunetan, esperientzia pertsonal edo komunitarioen berri eman zuten, baina, horrez gain, borrokaren, sare afektiboaren eta antolakuntza-ibilbideen genealogiak ere ehundu zituzten. Kontakizun horiek ainguraketa politikoak izan ziren, eta, bertatik, zilegitasuna eman zitzaizen esakerei, nortasun kolektiboari eutsi zitzaizen eta diskurtso ofizialen aurka borrokatu ziren, emakumeen mugimenduen historia ikusezin egiteko, zatitzeko edo hutsaltzeko joera dutelako.

Azaltzeko, gogoratzeko eta bizitakoari (ez esandakoari ere) izena jartzeko jarduerari esker, emakume parte-hartzaile askok beste emakume batzuen antza zutela ikusi zuten, oinazeari esanahi berria eman zioten eta hitz egiteko eta protagonismo politikoa edukitzeko eskubidea zutela berretsi zuten. Alde horretatik, oroimena ez zen partekatu zen zerbait bakarrik izan, bete-betean eratu zelako elkarriketan bertan, emozioen, isiluneen, gorpuztasunen eta afektu partekatuen bitartez.

Oroimen horren dimentsio kolektiboa ez zen tokian tokira edo arlo nazionalera mugatu. Bizkaiko eta Peruko emakumeen arteko nazioz hara indiko el-

Ikaskuntza kolektiboak eta jakintza feministan egindako ekarpenak

karrizketak agerian utzi zuen zenbait esperientziak (esate baterako, jazarpen politikoa, arrazakeria instituzionala, ezegonkortasuna edo isiltasuna) zenbait forma hartzen dituztela testuinguruaren arabera, baina botere-egitura bate-ratuekin bat datozela. Lotune horri esker, oroimen feminista global, kokatu eta anitza eratu zen, eta berariazkotasunak nahiz lotune partekatuak aitortzen ditu.

Horrez gain, oroimena salaketarako estrategiatzat ere hartu zuten, baina sendaketarako ere bai. Bizitakoari izena jartzean, bortitza edo baztertzaila izan denean ere, duintasuna berrezarri zen, konponketa sinbolikoa sortu zen eta ekintza politikorako modu berriak jarri ziren abian. Alde horretatik, oroimena ez zen itxitako artxibo moduan ulertu, eratzen ari den, orainari eusten dion eta etorkizuna bideratzen duen prozesu moduan baizik.

Azkenik, nabarmendu egin zen premiazkoa zela oroimen feminista horiek gordetzea, sistematizatea eta agerian jartzea. Kontakizunen agiriak, artxibo bizidunen sorrera, jarduera artistiko eta pedagogikoak edo oroimena politika publikoetan ezartzeko prozesua forma zehatz moduan aipatu ziren, oroimena ikuspegi feministaren bidez instituzionalizatzeko eta ikaskuntza kolektiboak ez galtzeko edo haien jatorrizko zentzu politikoarekin zerikusirik ez duten esparruak haien jabe ez egiteko.

Proposamen metodologikoak eta prozesua berregiteko tresnak

7.4

Bizkaiko eta Peruko emakume liderren arteko topaketen zikloan garatutako prozesuak ikaskuntza baliotsuak sortu ditu bere edukiengatik nahiz aukeratutako ikuspegi metodologikoagatik. Esperientzia honek giltzarri zehatzak eskaintzen ditu, beste lurralde, testuinguru instituzional edo antolakuntza-prozesu batzuetan berregin ahal izateko, nazioz haraindiko elkargunetzako ikuspegi feminista kontuan hartuta.

Ekarpen metodologiko nagusietakoa emozioei begira jasangarriak diren eremu seguru horizontalak sortzea izan da. Bertan, hain zuzen ere, emakume parte-hartzaileek esperientzia politiko, pertsonal eta kolektiboak partekatu

ahal izan zituzten judizioaren edo instrumentalizazioaren beldur izan gabe. Konfiantza hori honako hauexen bidez suspertu zen: aurkezpen sinbolikora-ko dinamikak, talde-lan murritzua, entzunaldi aktiboa eta denbora emozio-
nalak nahiz bertan zeuden gorputzak erdigunean jarri zituen lan zainduaren
erritmoa.

Horrez gain, zikloaren diseinuan, nahita ezarri zen elkargunetzako begirada, taldeak osatzeko prozesuan nahiz bitartekaritzan. Belaunaldiaren, lurraldea-
ren, etniaren eta ibilbide politiko zein komunitarioen arloko aniztasuna hartu
zen kontuan, ahotsak “emakumeak” kategoria generikopean ez homogenei-
zatzeko asmoz. Ikuspegi horri esker, tentsioak, barruko desberdintasunak eta
ikaskuntza partekatuak ere azaleratu zirenez, kokatuagoa eta anitzagoa den
jakintza sortu zen.

Berregin daitekeen beste giltzarri bat nazioz haraindiko elkarrizketa da, eta
metodologia politiko moduan erabili daiteke eta ez bakarrik jarduera ego-
kien truke moduan. Testuinguru geopolitiko desberdinetako emakume lide-
rren arteko topaketari esker, antzekotasunak ezarri ziren indarkeria-motetan,
erresistentziarako estrategiak hartu ziren inspirazio-iturri moduan eta haus-
narketa kritikoa egin zen feminismo instituzionalaren esparru hegemonikoei
buruz. Hegoalde globaleko eta iparralde globaleko jakitateen arteko horizon-
taltasun hori haustura epistemologiko eta politikoa izan zen berez.

Tresna zehatzei dagokienez, prozesua partaidetzazko zenbait baliabide sor-
tzailetan oinarritu zen: elkarrizketarako gidaliburuak, mapatzeko prozesu ko-
lektiboak, sistematizazio idatzi eta ikusizkoak, oroimen-mantak, egunkari sin-
bolikoak eta gorputzaz nahiz hitzaz ixteko dinamikak, besteak beste. Tresna
horiei esker, esperientziak sentikortasunez zein zehaztasunez bildu ziren, eta
bizitakoaren karga afektibo nahiz politikoa galdu gabe aztertu ziren ondoren.

Era berean, sistematizazio-ikuspegi feministaren bidez emandako lagunta-
sun iraunkorra funtsezkoa izan zen, bizitako prozesua partekatutako jakin-
tza politiko bihurtzeko orduan. Lekukotasunen bilketa, laburpen partzialen
itzulera, hausnarketa kolektiborako denboren errespetua eta parte-hartzailei
edukiak berrikusteko emandako aukera funtsezko jarduketak izan dira,
prozesua koherentea, etikoa eta eraldatzailea dela bermatzeko.

Azkenik, etorkizunean prozesua berregiteko gomendio metodologiko hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

- **Topaketarako prozesuak diseinatzea, harremanetarako eremu moduan eta ez bakarrik prestakuntzarako eremu moduan.**
- **Elementu sinboliko, erritual eta sortzaileak erabiltzea, gorputzaren, emozioaren eta oroimenaren balioa aitortu dezaten.**
- **Metodologia dekolonial eta kokatuen aldeko apustua egitea, jakitate ez-hegemonikoak aitortzeko eta logika estraktibistak saihesteko.**
- **Bitartekaritza feminista zaintzea, zainketen, euspen emozionalaren eta entzunaldi aktiboaren ikuspegia kontuan hartuta.**
- **Aldi berean sistematizatzeko prozesuak ziurtatzea, ikas-kuntzak eurak neutralizatu gabe bildu ahal izateko.**

Azken batean, zikloak egiaztatu egin du badagoela elkarrekikotasunean, elkarren arteko aitortzan eta zentzuaren eraketa kolektiboan oinarritutako prozesu politiko feministak sortzerik eta behar besteko tresna zehatzak daudela esperientzia hau sustrai eraldatzailea galdu gabe berregin ahal izateko.



BETE BEHARRAREN TITULARRENTZAKO (BBTT) GOMENDIOAK



Betebeharren Titularrentzako (Bbtt) Gomendioak

Topaketen zikloan bertan adierazitako bizipenen, estrategien eta proposamenen azterketa kolektibotik abiatuta, zenbait eskakizun politiko eta neurri zehatz eratu dira Betebeharren Titularrentzat (BBTT) (instituzio publikoak, arduradun politikoak eta gobernu-egiturak). Proposamen horiek ez dira laguntza-begiradaren ondorioz sortu, eskubideen erabilera aktiboaren eta emakume lider feministek egunero-egunero euren lurraldeetan abian jartzen duten jarduera politiko eraldatzailearen ondorioz baizik. Babestu ez ezik lidergo feminista kalitate demokratikorako baldintza moduan sustatu, eutsi eta aitorzen duten ingurune instituzionaletarantz aurrera egitea da helburua.

Gomendioak lau multzo estrategikotan daude egituratuta: ingurune instituzional seguruen bermea, elkargunetzako ikuspegi feminista kontuan hartzen duten politika publikoen bultzada, emakumeen lidergoak aitortzeko eta eus-teko prozesua eta indarkeria instituzionalengatiko konponketa.

Ingurune seguruak bermatzeko neurri instituzionalak

8.1

Zikloan parte hartu duten emakume lider politiko, komunitario eta feministek behin eta berriro egindako eskaereta koaren arabera, premiazkoa da instituzioek indarkeriarik gabeko eremu politiko, instituzional eta komunitarioak bermatzeko erantzukizuna euren gain hartzea. Hori dela eta, ez da nahikoa egitate burutuen aurrean erantzutea, indarkeria matxista, sinboliko, instituzional eta politikoa baimendu, toleratu edo ezkutatzen duten baldintzen egitura eraldatu behar delako.

Hurrengo gomendioak tokian tokiko, eskualdeko edo estatuko (udalak, aldundiak, gobernu autonomikoak, ministerioak, herriaren defendatzaileak, sistema judizialak eta nazioarteko erakundeak) instituzio publikoentzat dira. Izan ere, giza eskubideen eta genero-berdintasunaren arloko Betebeharren Titularrek (BBTT) arlo publiko eta politikoan emakumeen aurkako indarkeriak

prebenitzeko, babesteko, zehatzeko eta konpontzeko eginbeharra daukate:

- **Emakumeen aurkako indarkeria politikoa prebenitzeko, artatzeko eta zehatzeko berariazko protokoloak ezartzea** eta, horretarako, indarkeria sinbolikoak, digitalak, instituzionalak eta harremanezkoak kontuan hartzea, baita protokolo horiek abian jartzeko mekanismo argi eta eskuragarriak ere.
- **Instituzio publikoetan bertan** (zinegotzigoak, parlamentuak, kontseiluak, unibertsitateak...) **laguntzarako unitateak edo instantziak sortzea** eta, bertan, langile prestatuak egotea, arlo politikoko genero-indarkeriako kasuetan laguntzeko eta isilekotasuna, berririo biktima ez bihurtzeko prozesua eta ekintza eraginkorra bermatzeko.
- **Jokabide-kodeetan, barruko araudietan eta elkarbizitzari buruzko arautegietan elkargunetzako ikuspegi feminista ezartzea**, bereizkeriazko jardunen edo jardun sexisten aurkako zehapenak barne, errespetuan, aitortzan eta berdintasunean oinarritutako kultura instituzionala sustatzeko asmoz.
- **Emakumeen partaidetza segururako baldintza material eta sinbolikoak sortzea**, baina era askotako bereizkeriak pairatzen dituzten emakumeentzat batez ere (gazteak, migratuak, indigenak, desgaituak, landa-inguruneak...). Horretarako, zenbait neurri hartu beharko dira; esate baterako, eskuragarritasun unibertsala, zainketen estaldura, interpretazio linguistikoa edo egokitzapen kulturala.
- **Berdintasunerako batzordeak eta genero-mekanismoen instituzionalek baliabideak, autonomia eta eragiteko benetako boterea dituztela bermatzea**, eremu apaingarriak edo kontsulta hutserako eremuak

Betebeharren Titularrentzako (Bbtt) Gomendioak

izan ez daitezen.

- **Erakunde feministekin eta emakume lider komunitarioekin aliantzak ezartzea, politika horiek diseinatzeko eta ebaluatzeko.** Horretarako, haien esperientzia eta jakitate kokatua ezinbesteko ekarpena direla aitortzea, instituzioak benetan eraldatzeko orduan.
- **Datuak biltzeko eta arlo politikoko indarkeriak behatzeko sistemak ezartzea** eta sexuaren, adinaren, jatorriaren, desgaitasunaren, lurraldearen eta baldintza politikoaren arabera sailkatzea, gaur egun berezko kategoria juridikorik ez duten jazarpen instituzional, sinboliko edo digitaleko kasuak erregistratzeko mekanismoak barne.

Neurri horiek, ordea, ez dira unean uneko edo borondate oneko ekintzak, giza eskubideen, genero-berdintasunaren eta ez-bereizkeriaren arloko nazioarteko konpromisoen ondorioz sortutako betebehar instituzionalaren parte direlako. Ingurune seguruak bermatzen direnean, emakumeak babestuta daude euren ekintza politikoan, eta, horrez gain, demokrazia hobetzen da, kalitate instituzionala hobetzen da eta ordezkagarritasun soziala handitzen da erabakiak hartzeko guneetan.

Elkargunetzako ikuspegi feminista kontuan hartzen duten politika publikoak

8.2

Topaketen zikloan bertan zehaztutako indarkeriak ez dira isolatutako kasuak, instituzioak, arau-esparruak eta eguneroko jardun politikoak zeharkatzen dituzten egiturazko desberdintasunen adierazgarri direlako. Horren aurrean, emakume parte-hartzaileen esanetan, premiazkoa da elkargunetzako ikuspegi feminista kontuan hartzen duten politika publikoak eratzea, behar besteko gaitasuna duelako emakumeek honako honexen arabera pairatzen dituzten zapalkuntza ugariak aitortzeko: haien generoa, jatorria, arraza, gizarte-maila, adina, desgaitasuna, landatasuna edo migrazio-prozesuekin lotuta-

ko egoera administratiboa.

Ikuspegi hori ezin da printzipioen adierazpenetara mugatu. Horretarako, politika publikoak nola diseinatu, ezarri eta ebaluatzen diren eraldatu beharra dago, emakumeen errealitate dibertsoekin eta desberdintasunaren egiturazko arrazoiekin bat datozela ziurtatzeko.

Alde horretatik, honako hauexek dira gomendio nagusiak:

- **Emakumeen esperientzia zatitzen ez duten politika integralak bultzatzea**, honako haxe aldi berean jorratu dezaten: indarkeriak, bazterkeria ekonomikoa, zerbitzu publikoak eskuratzeko aukera, sexu eta ugalketa eskubideak eta ikuspegi holistikoan oinarritutako partaidetza politikoa.
- **Elkargunetza derrigorrezko irizpide moduan kontuan hartzea politika publikoen diagnostikoetan, plangintzan eta ebaluazioan**, emakume indigenek, afroinordekoek, landa-inguruneek, gazteek, adinekoek, desgaituek eta migratuek jasaten dituzten eragin bereziak antzematen direla bermatzeko.
- **Erakunde feministenzako eta emakume lider komunitarioentzako partaidetza loteslerako mekanismo egonkorak ezartzea politika publikoak egitean**, haien jakitateak, ibilbideak eta ekarpenak zilegizko jakintza kokatuaren parte direla aitortzeko.
- **Gaitasun instituzionalak indartzea, elkargunetzako genero-ikuspegia gobernu-maila guztietan zehar-katzeko**, politikari eta teknikarientzako prestakuntza espezializatua eta laguntasun teknikoa kontuan hartuta.
- **Behar besteko baliabide jasangarri eta deszentralizatuak esleitzea**, politika publiko feministak betearaz-

Betebeharren Titularrentzako (Bbt) Gomendioak

teko eta nazioarteko lankidetzako fondoen edo aldizkako deialdien inguruko menpetasun eskusiboan ez egoteko.

- **Berariazko planak eta programak diseinatzea, emakumeen partaidetza politikoa berdintasunean garatzen dela bermatzeko**, honako neurri hauek kontuan hartuta: baieztatu ekintza, elkargunetzako parekotasuna, laguntzarako sareak eta indarkeria politikoaren aurkako babesa.
- **Indarreko arau-esparruak berrikustea eta egokitzeta**, desberdintasunak eta estereotipoak errepikatzen ez direla eta indarkeria instituzional, sinboliko eta digitalak prebenitu eta zehatu beharreko zilegizko indarkeriak direla bermatzeko.

Helburua ez da elkargunetzako ikuspegi feminista arauzko apaingarri moduan eranstea, zeharkako tresna bihurtzea baizik, neutroak diruditen logikapean politika publikoek desberdintasunak edo indarkeria instituzionalak berriz ez ditzaten. Lerro horretatik aurrera egiteko, erabakiak deszentralizatu, baliabideak berriz banatu eta emakume antolatuen jakintza bete-betean aitortu beharra dago.

Emakumeen lidergoen aitortza eta jasangarritasuna

8.3

Topaketen zikloan gehien aipatu diren aurkikuntzetakoa emakumeen lidergoak maila instituzional, sozial eta politikoan ez aitortzea izan da, historiari begira baztertuta dauden sektoreetakoak diren emakumeenak, batez ere: emakume indigenak, landa-inguruneak, migratuak, gazteak, desgaituak edo txiroak. Baloratuak izan beharrean, lidergo horiek kolokan jartzen dira, isolatu egiten dira edo modu sistematikoan ere egiten zaie eraso.

Horrez gain, ez dago lidergo-prozesuei urteen joan-etorrian eusteko baldintza material eta sinbolikorik. Zereginen gainkargak, laguntzarako sareen faltak, ezegonkortasun ekonomikoak eta indarkeria politikoak emakume askoren partaidetza iraunkorrerako benetako aukerak ahultzen dituzte. Egoera horren aurrean, funtsezkoa da Betebeharren Titularrek emakumeen lidergoa babestu, sustatu eta eutsi beharreko ondasun erkidea dela aitortzea.

Hona hemen gomendatutako ekintza-lerro nagusiak:

- **Emakumeen lidergo sozial, komunitario eta politikoak demokraziarako eta gizartearen eraldaketarako funtsezko herri-partaidetza dela aitortzea modu ofizialean.** Aitortza hori diskurtso publikoetan eta laguntzarako nahiz zilegitasunerako mekanismo zehatzetan azaldu behar da.
- **Emakumeen lidergoak sendotzeko berariazko programak sortzea,** testuinguru landatarretan, indigene-tan edo zaugarrietan, batez ere, honako haxe kontuan hartuta: prestakuntza, laguntasuna, baliabide materialak eta autozainketa kolektiborako eremuak.
- **Lidergoaren jasangarritasunerako baldintzak bermatzea,** zainketen inguruko erantzukidetasun instituzionala, partaidetzarako baliabideak (garraioa, bateragarritasuna eta elikadura) eta indarkeria politikoaren aurkako politika aktiboak kontuan hartuta.
- **Emakume liderren eta eskubideen defendatzaileen aurkako indarkeriei aurre egiteko babes-neurriak ezartzea,** aktibismoaren kriminalizazioa, jazarpen politikoa, zirikatze digitala edo sexu-indarkeria nagusi diren testuinguruetan, batez ere.
- **Emakumeen lidergoaren erreferente dibertsoak agerian jartzea eta edukitzea,** estereotipo hegemonikoekin hausteko eta arlo politikoa, komunitarioa,

Betebeharren Titularrentzako (Bbt) Gomendioak

afektiboa, egunerokoa eta behinolakoa uztartzen dituzten ibilbide ugariak aitortzeko.

- **Belaunaldien arteko lidergoak eta lidergo kolektiboak sustatzea**, baina ez emakume bakar batean oinarrituta daudenak, belaunaldien artean jakitateen jarraipena eta igorpena sendotzen dituzten prozesu partekatuetan baizik.

Lidergo feministei eustea ez da aitortza sinbolikoa, boterea birbanatzeko egiturazko zeregina baizik. Aurrerantzean, instituzio demokratikoak ezin dira gizonen pribilegiarako eremuak izan. Emakumeen lidergo dibertsoak aitortzea, zaintzea eta sendotzea ez da emakida: zor historikoa da, betebeharrak demokratikoa eta gizartea eraldatzeko funtsezko estrategia.

Indarkeria instituzionalei aurre egitean laguntasunerako eta konponketarako dauden ereduak

8.4

Zikloan bertan antzemandako indarkeria instituzional ugariak (zerbitzu publikoetan jasandako tratu txarra, berriro biktima bihurtzeko prozesu judiziala edo zirikatze politikoa, besteak beste) agerian jartzen dute emakumeen eskubideak babesteko bermeen falta larria dela instituzioekin dituzten harremanetan. Askotan ikusezinak diren edo normalizatuta dauden indarkeria horiek kalte sakon bezain iraunkorrak sorrarazten dituztenez, emakumeen osasun fisiko, emozional eta komunitarioan dute eragina, baita partaidetza politikorako edo lidergorako prozesuei eusteko duten gaitasunean ere.

Errealitate horren aurrean, premiazkoa da Betebeharren Titularrek laguntasunerako eta konponketarako eredu integralak bultzatzea eta bide judizialera nahiz protokolo formaletara ez mugatzea, indarkeria horien konplexutasuna kontuan hartzeko gai den elkargunetzako etika feminista eta komunitarioaren bidez erantzun behar dutelako.

Honako haxe kontuan hartzen da funtsezko jarduketa-lerroetan:

- **Laguntasun emozional, legal eta komunitariorako mekanismo instituzionalak diseinatzea** indarkeria instituzionalak pairatu dituzten emakumeentzat, emakume kaltetuek eurek adierazitako premien isilekotasuna, errespetua eta zentraltasuna bermatzeko.
- **Elkargunetzako eta kultura arteko ikuspegiak kontuan hartzea** laguntasunerako prozesuetan, erantzunak emakume indigenen, migratuen, desgaituen, gazteen, adinekoen, landa-ingurunekoen... errealitateen araberakoak direla ziurtatzeko.
- **Instituzioek eurek garatutako indarkeriak jendarean aitortzea**, oroimenerako, egiarako eta konponketa sinbolikorako prozesuak irekitzeko. Bertan, gainera, barkamen ofizialak eskatu, prozedurak berrikusi eta antolakuntza-kulturak eraldatu beharko dira.
- **Prestakuntza feminista eta espezializatua duten erreferentziako taldeak ezartzea** administrazio publikoetan bertan, indarkeria instituzionaleko kasuetan esku hartzeko, biktimei laguntzeko eta babeserako neurriak abian jartzeko.
- **Elkarriketarako eta konponketa kolektiborako eremuak sortzea**, indarkeriek talde antolatuetan, elkarreetan edo erkidego osoetan eragina izan dutenean, batez ere. Konponketa ezin da banakakoa bakarrik izan: kalte kolektiboa ere aitortu beharko du.
- **Emakume kaltetuek laguntasunerako ereduen euren diseinuan duten protagonismoa sustatzea**, logika paternalistak edo hierarkikoak saihesteko. Laguntasuna indarkeria horiek bizi izan dituztenekin eta haien esperientzien bidez eratu behar dira.

- Tresna horiei **nahikoa baliabide material eta pertsonal ematea**, luzaroan dirautela bermatzeko eta berriro biktima ez bihurtzeko, arreta-faltagatik, desinformazioagatik edo burokratizazioagatik..

Indarkeria instituzionalagatiko konponketa ezin da egintza sinbolikoetara eta banakako neurrietara mugatu. Horretarako, kultura instituzionalak eta entzuteko mekanismoak sakon eraldatu behar dira, boterea birbanatu behar da eta kaltea ez errepikatzeko benetako borondate politikoa eduki behar da. Justizia feministarantz aurrera egiteko, emakume kaltetuen ahotsak, esperientziak zein proposamenak jarri behar dira erdigunean, eta, urratutako eskubideak ez ezik, apurtutako konfiantza-lotuneak ere berrezarri behar dira.

ONDORIOAK



Ondorioak

9.1

Sistematizazioa eta zabalkundea/ agerikotasuna, justizia sinboliko eta politiko moduan

Txosten honetan garatutako sistematizazio-prozesua ez da jarduera tekniko hutsa, ezta lekukotasunen bilketa neutroa ere. Ezeren gainetik, euren partaidetza politiko eta komunitarioan emakumeek jasaten dituzten egiturazko indarkerien eta indarkeria instituzionalen aurrean eduki beharreko jarrera politiko eta etikorako egintza da. Elkargunetzako ikuspegi feministaren bidez sistematizatzean, entzunaldia aktiboa izan behar da, isilarazitako ahotsak airtortu behar dira, zilegitasuna eman behar zaie eta bizitako esperientziaren balio politikoa leheneratzen duten narrazio kolektiboak ehundu behar dira.

Zigorgabetasuna, higadura instituzionala, egiturazko arrazakeria eta aktibismo feministari zilegitasuna kentzeko prozesua ezaugarri bereizgarri duten testuinguruetan (Perun nahiz Bizkaian gertatzen den bezala, nahiz eta adierazpideak desberdinak izan), indarkeriak aipatzea eta agerian jartzea eraldaketaren aurretiazko urratsa ez ezik, konponketa sinbolikorako sistema zehatza ere bada. Izenik ez duenak ez du izanik. Dokumentatzen ez dena ez da gogoratzen, gainera. Horregatik, sistematizazio honek emakume protagonistei eurei itzuli nahi izan dizkie haien kontakizunen balioa, azterketa-gaitasuna eta euren hizkuntzen, sinboloen zein tresnen bidez oroimena eratzekeo duten eskubidea.

Hemen landutako justizia sinbolikoa ez da aitortza abstraktura mugatzen, bazterkeriako, indarkeriako edo higadura instituzionaleko esperientziak pairatu dituzten emakumeen aukeran gauzatzen delako, haien ibilbideari esanahi berria ematean, kalte-historia barik erresistentzia-historia dela kontuan hartu dadin. Kontakizunak modu kolektiboan antolatzean, lotzean eta itzultzean, sistematizazioa ispilua dela esan daiteke, eta bizitakoa islatzen du, baina, horrez, gain, politizatu egiten du, esanahi berria ematen dio eta partekatutako aukera moduan proiektatzen du.

Horrez gain, sistematizazioak borroka epistemologikoaren eginkizuna betetzen du. Ikuspegi teknokratiko edo asistentzialistek jakitateen zatiketa inposatzen badute ere, prozesu honek egiaztatu egiten du emakumeek, euren lurralde, erakunde eta gorputzetatik, jakintza politikoa ekoizten dutela, tresna metodologikoak sortzen dituztela eta zeharkatzen dituzten egituren inguruko azterketa konplexuak egituratzen dituztela. Jakitatearen ekoizpen hori aitortu egin beharra dago, eta, horrez gain, oinarri moduan erabili beharra dago politika publikoak, arau-esparruak eta jarduketa instituzionalak diseinatzeko orduan.

Zikloan bertan lortutako ikaskuntzen zabalkundea justizia sinbolikoaren beste ardatz nagusi bat da. Kontakizun eta hausnarketa horiek tresna publiko bihurtzean, isolamendua apurtzen da, ezusteko aliantzak sortzen dira eta mugimenduen, lurraldeen zein belaunaldien arteko zubiak ezartzen dira. Alde horretatik, agerian jartzea salaketa-egintza da, baina proposamen-egintza ere bai, honako hauxe partekatze aukera ematen du-eta: ekintzarako giltzarriak, zainketarako estrategiak, interpretaziorako esparruak eta beste testuinguru batzuetan erabilgarriak izan diren metodologiak. Hartara, oroimena ez da iraganean harrapatuta geratuko, eta orainerako nahiz etorkizunerako baliabide politikoa izango da.

Era berean, sistematizazio-prozesuak leku bateratua eskaintzen du, bertatik sarean pentsatu ahal izateko eta, bertatik, berdinen artean elkar ezagutzeko, lurraldeko, instituzioetako edo belaunaldietako mugetatik haratago. Topaketetan nabarmendu denez, emakume askok antzeko bizipenak partekatzen dituzte (batzuetan haientzat izenik ez badute ere), eta, hain zuzen ere, bizipen horiek kontakizun kolektiboan lortzen dituzte zentzua, duintasuna eta zuzendaritza politikoa. Sistematizazioak bizitakoa kolektibo egiteko prozesu hori errazten du, eta errua, lotsa edo larregizko autoeskaera barruratzeko joera hausten du.

Azkenik, sistematizatzea ezer ez dagoenean konpontzeko modua ere bada: izenik jartzen ez duten politiken aurrean, kontuan hartzen ez diren erregistro estatistikoaren aurrean eta entzuten ez duten instituzioen aurrean. Ukatutakoa dokumentatzea eta agerian jartzea funtsezko urratsa da demokratikoagoak, inklusiboagoak eta zainzaileagoak diren politika-egikeretarantz aurrera egiteko orduan.

Laburbilduta, txosten hau sorrarazi duen sistematizazio feminista justizia sinbolikorako, konponketa kolektiborako eta borroka politikorako jarduketa da. Izan ere, hementxe bildu dena lekukotasunak ez ezik, aldaketarako haziak ere badira. Beraz, agerian jartzea (zehaztasunez, arretaz eta ikuspegi kritikoaz) bidezkoagoa den munduranzko bidearen parte da.

Ekintza politiko feministarako aukera erkideak

9.2

Bizkaiko eta Peruko emakume lider feministen arteko topaketen zikloak age-rian jarri duenez, testuinguruaren, kulturaren, lurraldearen eta instituzioen arloan desberdintasunak badaude ere, etorkizun partekatua dago, eta ekintza politiko feminista bideratzen du bi lurraldeetan. Etorkizun hori, gainera, ez da ez iritsi-gune homogeneous ez programa itxia, prozesuan dagoen eraketa kolektiboa baizik, eta honako hauexek ditu elikagai: eguneroko erresistentziak, borroken inguruko oroimena, nazioz haraindiko aliantzak eta sistema goitik behera eraldatzeko guria.

Etorkizun bateratu hori egituratzen duten zeharkako ardatzetako bat emakumeen gorputzen eta bizitzaren zentraltasuna da, bertatik azterketa politikoa egiten delako, egiturazko indarkeriak antzematen direlako eta alternatibak proposatzen direlako. Oraindik ere arlo abstraktua, arauzkoa edo teknokrati-koa lehenesten duten eredu politikoen aurrean, emakume parte-hartzaileek behin eta berriro diote bizia bera (zaugarritasunak, emozioak, jakitate gorpuztuak eta lotuneak kontuan hartuta) jarri behar dela zeregin politikoaren erdigunean. Hori dela eta, zainketa, entzunaldia, afektibotasuna eta harremanezko etika lidergo feministaren funtsezko osagaiak direla aitortu beharra dago.

Bestetik, indar handiz sortzen den giltzarria ere bada boterea berriro zehazteko prozesua. Emakumeek boterearen erabilera patriarkal, kolonial edo larderiazkoa salatzen dute, baina, horrez gain, botere hori erabiltzeko beste modu batzuk ere sustatzen dituzte: eusteko, laguntzeko, babesteko, eraldatzeko, birbanatzeko eta sendatzeko boterea, alegia. Boterea indar kolektibo eta zaintzailea dela dioen kontzepzio hori erabat aldentzen da egitura ins-

tituzionaletan kontrolerako eta metaketarako nagusi diren logiketatik, eta, horren ordez, honako hauexek oinarri dituen lotunearen politika proposatzen du: erantzukidetasuna, horizontaltasuna eta erroketak komunitarioak.

Bi lurraldeetako kontakizunetan, agerian ere uzten da zeinen beharrezkoa den inklusiboagoa, parekoagoa, antirrazistagoa, eskuragarriagoa eta ordez-kagarriagoa den demokraziarantz aurrera egitea. Emakumeek behin eta berriro egiaztatu dute eremu instituzionalak betetzea ez dela nahikoa, barrutik nahiz kanpotik eraldatzen ez badira. Proposatzen duten feminismo politikoa kritikoa da gaur egungo egiturekin, baina oso-oso proposatzailea ere bai: bat ez datozenak edo deserosoak direnak kanporatzen, zigortzen eta ikusezin egiten ez dituen demokrazia proposatzen du.

Elkargunetzako eta nazioz haraindiko aliantzak sendotzea etorkizun partekatu horri eusten dioten beste zutabe batzuetakoa da. Zikloaren esperientziak egiaztatu egin du botere eraldatzailea duela honako hauexen arteko zubiak ezartzeak: zenbait eratako testuinguruaren artean, belaunaldien artean, landa-ingurune eta hiriguneko lurraldeen artean eta emakume migratuen, indigenen, arrazializatuen, gazteen, adinekoen, desgaituen edo oso ibilbide politikoa desberdinekoen artean. Aliantza horiek, ordea, ez dira batuketa hutsak, interpretatzeko, jarduteko eta eusteko modu berriak sortzen dituztelako eta elkarren arteko aitortzan eta ezbeharren aurrean modu kolektiboan eusteko borondatean daudelako ainguratuta.

Modu berean, jakintza kokatu, herritar eta kolektiboa politika publiko feministarako oinarria dela aldarrikatzen da. Emakume parte-hartzaileek eskatu dutenez, aitortza izan behar dute politiketako hartzaile edo erabiltzaile moduan, baina jakitatearen, estrategien, azterketa-esparruen eta eraldaketarako tresna zehatzen sortzaile moduan ere bai. Diagnostiko komunitarioak, herri-tarren behatokiak, laguntzarako sareak eta jazarpen politikoari aurre egiteko alerta goiztiarreko sistemak kontuan hartuta, agerian utzi zen jakitate feminista abian dagoela gaur egun eta benetako aldaketak sortzen ari dela, nahiz eta askotan beharrezkoa den babes instituzionalik ez daukan.

Azkenik, etorkizun feminista bateratu hori funtsezko ideia honen inguruan ere badago egituratuta: itxaropena, jardun politiko moduan. Hala ere, ez da kontsolamendu kolektiboa, antolatzen, prestatzen, salatzen, zaintzen, agen-

Ondorioak

da eratzen eta bidea urratzen jarraitzeko erabaki kolektiboa baizik. Alde horretatik, itxaropena ez da ez bakuna ez abstraktua, oso-oso zehatza eta iraultzailea baizik: bizitza erkideari eusteko modua, testuinguru txarrenetan ere bai.

